Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

KOMUNIKAZIO-GAITASUNA HAUR HEZKUNTZAN: diskurtso profesionalean trebatzen

Egilea

AMAIA ALVAREZ-URIA

EUSKARAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Aurkibidea

KOMUNIKAZIO-GAITASUNA HAUR HEZKUNTZAN: 1
diskurtso profesionalean trebatzen 1
Egilea 1
AMAIA ALVAREZ-URIA 1
1. KOMUNIKAZIO-GAITASUNA 7
1. jarduera 8
2. jarduera 9
Material osagarria 9
2. GAITASUN LINGUISTIKOA 11
3. jarduera 12
4. jarduera 16
5. jarduera 17
Material osagarria 18
3. GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA 19
6. jarduera 20
7. jarduera 24
8. jarduera 26
9. jarduera 28
10. jarduera 29
11. jarduera 31
12. jarduera 31
13. jarduera 42
14. jarduera (lan ebaluagarria) 42
Material osagarria 45
4. GAITASUN PRAGMATIKOA 49
5. DISKURTSOAREN ANALISIA 53
15. jarduera 55
16. jarduera 59

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

17. jarduera 60
18. jarduera 61
19. jarduera 62
20. jarduera 76
21. jarduera 77
22. jarduera 79
23. jarduera 82
24. jarduera 84
25. jarduera 86
26. jarduera 88
27. jarduera 90
28. jarduera 91
29. jarduera 93
30. jarduera (lan ebaluagarria) 96
Material osagarria 99
6. DISKURTSO PROFESIONALAK: GURASOEKIN BILERA 101
31. jarduera 102
32. jarduera 106
33. jarduera 111
34. jarduera 112
35. jarduera 114
36. jarduera 115
37. jarduera 116
38. jarduera 118
39. jarduera 120
40. jarduera 121
41. jarduera 124
42. jarduera (lan ebaluagarria) 125
Material osagarria 127

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

7. DISKURTSO PROFESIONALAK: AHOZKO AZALPEN FORMALA 129
43. jarduera 130
44. jarduera 142
45. jarduera 142
46. jarduera 143
47. jarduera 144
48. jarduera 144
49. jarduera 150
50. jarduera 156
Material osagarria 156
8. PANTAILEN ERAGINA HAURRENGAN: komunikazio-tresnak moduluko (K3) lana (lan ebaluagarria) 159
9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK 162

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Komunikazio-gaitasuna I Haur Hezkuntzan izeneko irakasgaia egin zenuten iaz, Haur Hezkuntzako lehen mailan, eta, orain, bigarren mailan, gai honekin jarraituko dugu.

Hasteko, *komunikazio-gaitasuna* kontzeptua zer den gogora ekarriko dugu galdera batzuen bidez talde txikietan. Iaz ikasitakoa berreskuratuko dugu, eta denon artean definizioa osatuko.

Jarraitzeko, komunikazio-gaitasunaren barruan dauden azpi gaitasunak zerrendatuko ditugu, eta ikusiko dugu sailkapen desberdinak ditugula aukeran. Iaz, gaitasun linguistikoa, gaitasuna soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa izan zenituzten hizpide eta langai. Aurten, aldiz, gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun pragmatikoa izango dira hobeto ezagutu eta ahotan-eskuetan izango ditugunak.

Beraz, irakasgai honetan, komunikazio-gaitasunean gure buruak kokatu ostean, gaitasun linguistikoari helduko diogu, batez ere errakuntza eta ohiko akatsei begiratuta; gaitasun soziolinguistikoan euskal soziolinguistikan darabilzkiten kontzeptu batzuen berri izango dugu, eta euskararen erabilera sustatzeko 2015etik aurrera abiatu diren egitasmoak ezagutuko ditugu; eta, azkenik, gaitasun pragmatikoan murgilduko gara, diskurtsoaren analisia eta diskurtso profesional batzuk aztertuz eta praktika onak esperimentatuz.

Gai bakoitzean teoria eta praktika uztartzen saiatuko gara, lana banaka eta taldeka eginez, bai ahoz bai idatziz. Ahozko aurkezpenak izango dira, idatzizko gogoetak, lan ebaluagarriak, dramatizazioak, mapa kontzeptualak, bideo-grabazioak, eta txosten idatziak. Jarraian, irakasgai honetan behar den oinarrizko materiala duzue, gai bakoitzean behar diren baliabideak emango zaizkizue, eta *Egela*n dituzuenekin osatu beharko dituzue (ikasturte bakoitzean zenbait gauza alda daitezke eta). Aurkezpena eginda, has gaitezen bidea urratzen!

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. KOMUNIKAZIO-GAITASUNA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

1. jarduera

Gaiaren sarrera egiteko taldeka jarriko zarete, eta jarraian duzuen galdetegia erantzuten ahaleginduko zarete. Ea zenbat gogoratzen duzuen duela urtebete ikasi eta ikusitakoaz! Bildu erantzun bakoitza post-it batean, eta amaieran arbelean batuko ditugu erantzun guztiak post-it horietan, denon artean erantzun bateratuak lortuz.

a. Zer da komunikazio-gaitasuna?

b. Zein dira komunikazio-gaitasunak? Sailkapen bat baino gehiago daude?

c. Zein lotura egin daiteke hizkuntzaren ikaskuntza/irakaskuntzaren eta komunikazio-gaitasunaren artean?

d. Nola ikusten duzue zuen burua komunikazio-gaitasunari dagokionez? Gaztelaniaz? Euskaraz? Ingelesez? Beste hizkuntzaren batean?

e. Eta zelan ikusten duzue zuen burua etorkizunean euskara-irakasle gisa Haur Hezkuntzan?

Jarduera amaitu ondoren egiteko hausnarketa: Zeintzuk izan dira desberdintasunak komunikazio-gaitasuna definitzean talde desberdinetan? Zeri erreparatu diote batzuek eta besteek? Zer egin du talde bakoitzak informazioa biltzeko; partaide bakoitzaren memoriaz gain, beste nonbaiten bilatu dute informazioa? Zenbat azpi-gaitasun agertu dira guztira? Zeri begiratzen dio bakoitzak? Zein da zuretzat garrantzitsuena, eta zergatik?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

2. jarduera



Lehen hurbilpen hau osatzeko, bi dokumentu irakurriko ditugu: "Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia" artikulua (Urtza Garay eta Aintzane Etxeberria, 2010) eta *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua* (HABE, 2005). Artikulua irakurri eta klasean komentatuko dugu, definizioak eta sailkapenak osatuz, eta Marko Bateratuan kontsultatuko dugu, egiten duten azpi-gaitasunen sailkapena eta haien deskribapena guk taldeka egindakoekin alderatuz.

- Artikulurako esteka: http://www.uztaro.eus/artikulua/74/irakasleen-komunikazio-gaitasuna-hausnarketarako-gaia/1030
- Marko Bateraturako esteka: http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculuma/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf

Material osagarria

Jarraian duzue komunikazio-gaitasuna zer den adierazteko E. Zulaikak eta E. Perez-Gazteluk *Idatziz komunikatu* (2012) liburuan dakartenaren laburpen bat:

1) Chomsky (1965). Estrukturalistei kritika eginez, honako hau esan zuen: "Language is *Competence* and *Performance*" (ezagutza eta erabilera).

2) Hymes (1966). *Komunikazio-gaitasuna* kontzeptua asmatu zuen: hizkuntza erabiltzeko gaitasun indibiduala (ezagutza eta trebetasuna behar dira hizkuntza komunikazio-egoera ezberdinetan egoki erabiltzeko).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

3) Gero, osagai eta antolaketa desberdinak egon ziren; gaitasun eta eredu desberdinak:

Canale & Swain (1980)	Gaitasun gramatikala
	Gaitasun soziolinguistikoa
	Gaitasun estrategikoa
Canale (1983)	Gramatikala
	Soziolinguistikoa
	Diskurtsiboa
	Estrategikoa
Bachman (1990)	Hizkuntzaren ezagutza/gaitasuna
	Hizk.ren erabilera/erab. komunikatiboa
Celce-Murcia, Dörnyei, Thurrell (1995)	Diskurtso-gaitasuna
	Hizkuntzaren gaitasuna
	Ekintza-gaitasuna
	Gaitasun soziokulturala
	Gaitasun estrategikoa

Denborarekin *gaitasun diskurtsiboak* hartu zuen garrantzi handiena.

Euskaraz, *hizkuntza-gaitasunak* dira oro har ebaluatzen eta lantzen direnak (Goikoetxea 2007).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

2. GAITASUN LINGUISTIKOA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

3. jarduera

Komunikazio-gaitasuna zer den gogoratu eta gero, lehen gaitasunarekin hasiko gara, gaitasun linguistikoarekin. Horretarako, banaka eta idatziz jasoko ditu zuetako bakoitzak orain arte hizkuntzekin izan dituen bizipenak, biografia linguistiko bat osatuz. *Korrika 19*ko DVDan agertzen diren elkarrizketak ikusi eta entzungo ditugu, eta Bego Montoriok idatzitako iritzi-zutabea irakurriko dugu eredu batzuk izateko; segidan, orrialde batean jasoko du bakoitzak norberarena.

Ikusi ezazue *Korrika 19*ko DVDan elkarrizketatutakoek diotena haien euskararekiko harremanari buruz.

Familia euskaldun batean jaio nintzen, baina txikitatik nire ikasketak, nire aisia, nire kirola, nire lagunartea, gazteleraz bizi nituen. Eta erabaki nuen euskaldun bizi nahi nuela Euskal Herrian eta munduan. Joxe Mari Agirretxe (**Porrotx pailazoa**)

Hartu nuen min sano bat esan zidanean hori. Esan zuen: ‘Ez al dizue lotsarik ematen beti erderaz jarduteak zuen artean denak euskaldunak izanda?’ Ta esan nion neure

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

buruari: ‘Honek neri hau ez dit berriz esango’. Martxelo Otamendi (**Berria egunkariko zuzendaria**)

‘Ni euskalduna naiz’ esan nien. ‘A! Entonces hablarás vascuence, no?’. Ta ni gelditu nintzen horrela. Ta aitortu behar izan nuen ez nekiela euskaraz. Eta jarraitu zuen pixka bat, ‘Bueno, baina zerbait jakingo duzu’. ‘Bueno, zerbait bai’. ‘Ba bota zerbait’. Eta esan nuen: ‘Txakurrak kanpora’. Eta horrek markatu ninduen. Errealitate gordina erakutsi zidan. Iñaki Martinez de Luna (**euskal soziolinguistikan aditua**)

Inbidia sortu zidan. Euskaraz egiten zuten haien artean eta nik ez nuen ezer ulertzen. Gero klabea izan zen behin kalean nengoela, lagun euskaldun batekin, pertsona batek zer edo zer galdetu zidan eta ez nuen ezer ulertu, ta lagunak erantzun zion. Egun horretan erabaki nuen euskaltegira joan behar nintzela behintzat ulermen-maila minimo bat lortzeko, hori ez gertatzeko. Mertxe Rodriguez (**Marimotots pailazoa**)

Ni betidanik izan naiz euskalduna: etxean, ikastolan… Baina behin lagun ezberdinak egiten dituzunean, konturatzen zara ez zarela besteak bezalakoa, eta erdara ikastea dela beste batzuentzat euskara ikastea bezala. Maider Unda (**borroka libreko borrokalaria**)

Gogoratzen dut anekdota bat. Hiru urterekin eskolara heldu eta irakasleari esan nion ‘que dice mi aita que a ver cuándo me vas a enseñar euskera’. Nik argi neukan horra nihoala euskara ikastera eta bultzada ematera euskarari. Katixa Agirre (**idazlea**)

Batez ere nor bere herrian zokoratua, baztertua edo isilarazia dagoela konturatzean, hor uste dut kontzientzia esnatzen ala oldartzen hasten dela. Sentitzen dut nire herrian bertako hizkuntza erabiltzen dudanean, etorkin bati bezala begiratzen didatela. Amets Arzallus (**bertsolaria**)

Talde txiki bat ginen hastapenean, bospasei, eta hogei-hogeita hamarreko talde bat hunkitu genuen. Ta ez genituen denak euskaldun bilakatu, hortik urrun, zeren eta ez ziren horretan. Baina piztu ginen zerbait, eta normala bilakarazi genuen talde oso batean euskara entzutea, euskaraz praktikatzea. Dioni Agerre (**errugbi jokalaria**)

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Amerikano batzuk esaten ziguten joaten zirela kontzertu askotara, eta zelan apreziatzen zuten eurok edozein herritatik etorritako taldeok euren hizkuntzan egitea musika. Ingelesez egiteko dena egiten dela nahiko berdin, baina bakoitzak egiten badu bere hizkuntzan horrek ematen zion plus hori. Maite Arroitajauregi (**Mursego musikaria**)

Kataluniara noanean kantatzera, beti aurkezpen guztiak katalanez egiten ditut. Bidaia guztian joan nintzen hori lantzen. Hara joan eta katalanez kantatzen hasi eta jende guztiak: 'En euskera!' Konturatu nintzen horren atzean zegoenaz. Beraiek nahi gaituzte garen bezalakoak, eta euskaraz. Eñaut Elorrieta (**Ken7 taldeko abeslaria**)

Hizkuntzen bizipena

Bego Montorio Uribarren 2013/03/16

http://31eskutik.com/2013/03/16/hizkuntzen-bizipena

Nork, berea. Halakoa dugu hizkuntzekiko harremana. Nork, berea, eta hizkuntza bakoitzarekin desberdina.

Nahikoa da inguru hurbilenera begiratzea konturatzeko zenbait hizkuntza bizi ditugula denok, egunero zein aldizka. Badugu ama hizkuntza bat, eta, gaur egun, gutako gehienok badugu guztiz geureganatu dugun beste hizkuntzaren bat, eta oso posiblea da beste hizkuntza bat edo batzuk nola hala jakitea, baita zer edo zer ulertzeko gai garen besteren bat egotea… Gertueneko jendea bakarrik hartuta ere, konbinazio posible ugari sortuko zaizkigu sailkapen horren arabera; eta hori, ezagutzari baino ez gagozkiola.

Erabileraren aldagaia eransten badugu, hau da, hizkuntza bakoitza noiz-norekin-zertarako erabiltzen dugun, konbinazioen kopurua biderkatu egiten da, halako moduz non zaila den perfil bereko pertsona bi topatzea. Zuen etxeko auzokideei erreparatu, eta hasi kontuak ateratzen. Bada bat euskalduna, bikotekide

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

erdalduna duena; seme-alabek euskaraz ikasi zuten, baina erdaraz jarduten dute denek etxean. Ondokoak euskaraz mintzo dira gehienbat, gurasoetako bat euskaldun berria bada ere; azken garaian, ingelesa ere entzun izan da haienean, atzerrian ikasten ari den semeak hango laguna ekartzen baitu oporretan. Horien aldamenekoek, berriz, belaunaldien araberakoa dute hizkuntzen banaketa: amamarekin arabieraz egiten dute denek, gurasoek nahastu egiten dituzte arabiera eta gaztelania euren artekoetan eta umeek gaztelania dute nagusi, noizean behin arabiera (amamarekin bakarrik) edo euskara (eskolan batez ere) tartekatuz. Hiru bizitoki, bost hizkuntza… Esana dut lehenago: zaila da bi egoera berdin topatzea.

Har dezagun kontuan bakoitzak hizkuntza horietako bakoitzarekin zer nolako atxikimendua duen, nola *bizi* duen, eta zaila zena ezinezko bilakatuko zaigu. Besteak beste, ez dakizkigun hizkuntzak ere sartzen direlako tartean, tutik ulertu ez arren erakargarriak baitzaizkigu batzuk, eta beste batzuk, ordea, baztergarriak. Lehengo etxe horretakoekin jarraituz, laugarrenekoa gauza da frantsesez moldatzeko, urtetan neskame ibili zelako familia frantses batenean, baina sekula ez du hitzik esaten hizkuntza horretan, ezta Landetara oporretan doanean ere. Honelako zerbait aditu nion behin: «Nik ulertzen zienat, bai, eta horrekin nahikoa dinat ziria sartzen ez didatela segurtatzeko. Besterik ez geninan behar, nik haiei gauzak erraz jartzea; baita zera ere!». Bigarrenean, berriz, bada hizkuntza eskolan frantsesa ikasten hasi den etxeko andre bat; oraindik ez dut jakin zerk hartaratua.

Antzeko zerbait gertatzen da lantokietan. Batek ama hizkuntza du lanean darabilena; beste batentzat hizkuntza nagusia da, jaiotzekoa ez izan arren, eta harako hark, ordea, lankideekin ikasitako hitz eta esaldi eginak baino ez dakizki hizkuntza horretan.

Hizkuntzak langai ditugunok ere, euskara lan tresna dugunok barne, nork bere hizkuntz ibilbideak ditugu. Nerabezaroan markatu gintuen liburu hura batzuek

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

euskaraz, beste batzuek frantsesez, gaztelaniaz, ingelesez… irakurri genuen, eta batzuentzat hizkuntza hori ama hizkuntza zen, edo ez… eta horregatik diogu atxikimendu berezia, edo ez…

Bada, ez dakit zenbateraino, ez dakit nola, baina azaldutako horrek gure iritzi, joera eta jokamoldeetan eragina baduelakoan nago. Adibide hutsala jarriko dut, lekuz kanpokoa izan daitekeen jardunari amaiera emateko: hiztegietan *galiziar* eta *galego* sinonimo modura agertu arren, niretzat ez dira, *galiziar* horren neutrotasunak ezin baititu bildu *galego* hitzaren musika, usaina… Neure txorakeria? Bai, jakina; nork, berea.

Orain, zure txanda da. Har ezazu orri zuri bat, eta hasi zure bizitzako hizkuntzei buruz idazten. Konta ezazu zein harreman mota izan duzun euretako bakoitzarekin, nola ezagutu zenuten elkar, zelako garapena izan duen zuen harremanak, egon diren gora-beherak, eta zein den oraingo egoera.

4. jarduera

Irakasleak zuen idazlanak jaso eta zuzendu egingo ditu. Bueltatuko dizkizue, eta hirunaka zuzentzen saiatuko zarete. Klaseko ohiko akatsekin zuzentzeko orri bat osatuko du, eta horiek zuzenduko dituzue banaka edo binaka. Oso zabalduta dauden akatsak dira ikusiko dituzuenak; beraz, ikasi itzazue berriro ez egiteko.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

5. jarduera

Honekin amaitzeko, Euskaltzaindiaren oinarrizko arau batzuk dituzu hurrengo esteketan. Taldeka banatuko ditugu arauok, eta irakurri, ulertu eta azaltzeko prestatuko ditugu. Zortziko taldeak osatuko ditugu eta talde bakoitzean arau guztien ordezkariak egongo dira. Taldekideei azalduko diegu irakurri dugun araua eta prestatu dugun adibidea; besteen arauen azalpenak entzungo ditugu, eta, zalantzarik balego, argitzeko eskatuko.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

- 1 Bat-batean, behinik behin, batik bat
- 23 Arazi eta 43 Arazi aditzaren erregimena
- 26 -z gero
- 35 Orduak nola esan
- 37 Data nola adierazi
- 39 Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu)
- 40 Topiko(a) bihurtu
- 11 –elako eta –en atzizkiak izena gobernaturiko perpaus osagarrietan

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Material osagarria

Urtarrileko azterketako lehen galderan eskatuko zaizue landu ditugun ohiko akatsak eta Euskaltzaindiaren arau aukeratuak testu labur batean antzematea eta zuzentzea.

Ohiko akatsei buruzko informazio gehiago nahi baduzue, honako hauek kontsulta ditzakezue:

- *Euskal jakintza* bloga (bereziki, “Gramatika arazoak” eta “Ortografia eta hiztegi batua” atalak):
    - http://euskaljakintza.com/ega/gramatika-arazoak/
    - https://sites.google.com/site/euskaljakintzaega/ortografiaetahiztegibatua
- *IVAPeko Estilo liburua* (2005) (bereziki, Gramatika eta Estiloa kapituluak) www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf
- Elixabete Zulaika eta Esther Perez-Gaztelu. (2012). *Idatziz komunikatu. Gazteak eskolan idazten*. Deustuko Unibertsitatea.

Euskaraz egitea kostatzen zaizu? Hitzak falta zaizkizu edo akatsak egiten dituzu? Hau bada zure kasua, hizkuntza lantzea gomendatzen dizugu. B2 maila izan behar duzue gutxienez ikasturte honetan, gradu amaieran C1 izan behar duzuelako. Beraz, lehen urratsa euskararekin duzuen kontaktua handitzea da: telebista eta irratia ikusi eta entzun ditzakezu maizago; sare sozialetan euskal komunitateak adierazten dituen gauzak ezagutu eta parte hartu; *Berria* egunkaria, *Argia* astekaria edo *Gaztezulo* aldizkaria irakurri; lagun euskaldunekin euskaraz hitz egin; eguneroko bat idatzi euskaraz… Galduta bazaude edo ez badakizu nondik hasi, galdetu irakasleari.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

3. GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA



Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

*Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua*n irakurri daiteke gaitasun soziolinguistikoaren definizio hau:

> Gaitasun soziolinguistikoak hizkuntzaren erabileraren alderdi soziala menderatzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak hartzen ditu bere baitan. (...) Hizkuntzaren erabilerarekin lotura espezifikoa duten eta beste inon aztertzen ez diren alderdiak aztertuko dira hemen: gizarte-harremanen adierazle linguistikoak, adeitasun-arauak, herri-jakintzaren adierazpenak, erregistro-desberdintasunak, dialektoa eta azentua (2005: 144).

Hizkuntzen alderdi sozialarekin eta erabilerarekin lotutakoak dira, beraz, gaitasun honetan agertzen direnak. Irakasgai honetan ezin ditugunez denak landu, bi alderditara hurbilduko gara. Batean, gaur egungo euskal soziolinguistikan erabiltzen diren kontzeptu batzuk ezagutuko ditugu; bestean, berriz, euskararen erabilera sustatzeko 2015etik 2020ra abian jarri ziren ekimen aipagarri batzuk ezagutuko dituzue.

6. jarduera

Atal honi ekiteko, munduko hizkuntzen mapa osatuko dugu. Badakizue zenbat hizkuntza mintzatzen diren gaur egun munduan? Zein dira, zuen ustez, erabilienak? Egin ezazue, behean, zuen ustez, munduko 5 hizkuntza erabilien direnen zerrenda, gehien erabiltzen denetik gutxien erabiltzen denera:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

1.

2.

3.

4.

5.

Ikusi dezagun bideo bat, zuen zerrendarekin zenbat asmatu duzuen jakiteko:

https://www.youtube.com/watch?v=OQwHNqMapiE Bideoaren 46. segundoan agertzen dira munduan gehien erabiltzen diren hizkuntzak. Sorpresarik izan duzue?

Orain *ethnologue* web-orrian sartuko gara, munduan zenbat hizkuntzatan berba egiten dugun jakiteko: https://www.ethnologue.com/guides/how-many-languages

Munduko hizkuntzen erabilerari eta egoerari buruzko informazioa topatu dezakegu web-orri honetan. Datuak eta kopuruak emateaz gain, hizkuntzen estatusa zein den esaten digu. Badira galtzeko arriskuan daudenak, garatzen dabiltzanak, eta indartsu daudenak.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Munduan 100 hiztunetik gora:	*Europako hizkuntzen hiztun kopurua:*	*... eta Euskal Herrian?*
Txinera 1213 milioi Gaztelania 329 m. Ingelesa 328 m. Arabiera 221 m. Hinduera 182 m. Bengalera 181 m. Portugesa 178 m. Errusiera 144 m. Japoniera 122 m.	100 milioi hiztunetik gora: Gaztelania Ingelesa Portugesa Errusiera 100-50 milioi hiztun artean: Alemana Frantsesa Italiera Turkoa	Ikus dezagun beste bideo bat; kale-neurketaren aurkezpena da: https://vimeo.com/232318898



Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Soziolinguistika Klusterrak bost urtean behin egiten du inkesta soziolinguistikoa; 2017. urtean VI.a egin zuen. Euskararen erabilerari buruzko datu kezkagarri batzuk azaldu ziren azterketa honetan. Xalba Ramirezen arabera (http://www.argia.eus/albistea/euskararen-erabilera-12-grafiko-kezkagarri), gorabeherak daude lurraldetik lurraldera:

• Bizkaian azken hamar urteetan behera egin du, eta baita Bilbon ere azken hamabost urteotan.

• Gipuzkoan azken bosturtekoan hasi da atzerakada, eta Donostian azken hamar urteotan atzera egiten ari da.

• Araban, eta batez ere Nafarroan, gora egin du erabilerak azken bost urtean, eta Gasteizen izan du igoerarik nabarmenena izan du azken bost urtean. Iruñea, ordea, bere horretan dago 1997tik.

• Ipar Euskal Herrian inoizko erabilera-indizerik baxuena jaso dute; Baionan apaldu egin da 2011tik, eta, gaur egun, gaztelaniaren erabilera bezainbestekoa da euskararena.





Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ondorioak aterako ditugu jarduera honi amaiera emateko. Hasieran munduko hizkuntzei buruzko uste batzuk genituen, eta orain datuak ditugu. Zertaz jabetu gara? Zerbait aldatu da gure hizkuntzei buruzko ezagutzan? Zerk deitu digu arreta? Zer ezagutzen genuen, eta zer ez?

7. jarduera



Gaiaren kokapena egin ondoren, soziolinguistikan erabiltzen diren kontzeptu garrantzitsu batzuk ezagutzen hasiko gara. Horretarako, ipuin bat irakurriko dugu; eta bertan gertatzen denaz arituko gara talde txikietan, eta, amaieran, talde handian. Sechu Sende-k idatzi zuen *Made in Galiza* (2012) ipuin-bildumatik hartu dugu “Hitz egitea” izenburua duen ipuin hau:



ORAIN DELA EGUN BATZUK bete dut lehen urtea, eta *Clara* hitza entzuten dudanean jaramon egiten dut. Egunero gauza berriak ikasten ditut etxe honetan bizi direnei esker. Amak beste izen bat dauka, Laura, eta amak *Tomas* esaten duenean badakit hori aita

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

dela. Lantzean behin, beste pertsona batzuk etortzen dira etxera. Begietan zimurrak dituzte, eta beti barrezka ari dira: aitona eta amona. Rula ere badago, txikitxoa da, eta kaiola baten barruan bizi da. Badakit nirea adin konplikatua dela, edozein unetan hasi beharko dudalako hizketan. Eta hori ez da egunero egiten. Hitz egiteak asko errazten ditu gauzak. Hitz egiten hasten naizenean, behingoz jakingo dute gauez negar egiten dudan guztietan ez naizela egarri edo tripako minez. Batzuetan, ulertzen ez ditudan gauzak amesten ditut, eta horregatik egiten dut negar. Gauza asko ez ditut ulertzen, baina bereziki horietako batek kezkatzen nau.

Etxe honetan oso arraro egiten dute hitz. Ama, aita eta aitona-amonak bazkaltzen ari direnean, adibidez, esaten dute *sopa*, *pásame o pan*, *un pouco de sal* edo *biscoito*. Nik belarria jartzen dut, eta ikasi egiten dut apurka-apurka. Rula bestelakoa da. Ezberdin hitz egiten du, kantuka edo txistuka, amak esaten duen modura. Zein ondo kantatzen duen Rulak, egin txistu apur bat, Rulatxo. Lehen, bakarrik nengoenean, batzuetan saiatzen nintzen Rulak bezala hitz egiten, baina inoiz ez nekien zer esan nahi nuen. «Ffffi» edo «ffffu» baino ez dakit esaten, Rulak bezala. Baina hori ez da inondik ere arazoa, etxe honetan inork ez baitu hitz egiten Rulak egiten duen moduan. Amak lantzean behin esaten dizkio gauza politak: «aditu, politta, al-pis-tea dakarkizut»; baina amak esaten duen moduan, zarata arrarorik egin gabe. Amari, aitari, aitonari eta amonari entzunda, ehun hitz baino gehiago ikasi ditut: *peido*, *pis*, *a nena ten fame*, *xa é de noite*, *esta nena é moi tranquila e moi lista*, *vai chover* eta abar. Hitzak entzun, niretzat gorde, eta errepikatu egiten ditut isilpean. Beste hainbat hitz ere entzuten ditut, baina horiek ez ditut ulertzen: *quilómetro*, *enciclopedia* edo *empanada de xoubas*. Kontua da amak aitarekin nitaz hitz egiten duenean zera esaten duela: *A nena está esperta*. Eta bat-batean nigana dator eta esaten dit: *Ay, mi niña, que ya despertó, ya despertastes, Clara?* Badakit Clara ni naizena, baina ez zergatik deitzen didan *mi niña*, ni *a súa nena* banaiz. Aitak ere gauza bera egiten du: amonarekin ari da eta esaten du: *A nena debe de ter fame*, eta gero esaten dit: *Clara, cosita, tienes hambre?* Nik asko irekitzen ditut begiak, zer gertatzen den ulertzeko asmoz. Egoera arraroa da, baina behin eta berriz errepikatzen da. Euren artean ez, baina nirekin ari direnean aldatu egiten dute hitz egiteko modua.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Orain, dilema bat dut. Badakit itxaroten ari direla hitz egiten noiz hasiko. Isilean badakit *Ma-Má* esaten dagoeneko. Bakarrik nagoenean esaten dut, ez dudalako lehendabiziko aldiz txarto esan nahi. Baina nire dilema beste bat da: ez dakit nola egingo dudan. Gurasoek eta aitona-amonek beren artean egiten duten moduan, edo gurasoek nirekin egiten duten moduan. Rulak, behintzat, beti egiten du berdin. Ez ditut gurasoak ulertzen. Oraindik, itxaron egingo dut pixka bat, ea auzia behingoz argitzen dudan. Dena den, nik beren erara egitea nahi ez badute, hori egiteko arrazoiak izango dituzte. Diot nik ...

Bildu zaitezte talde txikitan, eta hitz egin irakurri berri duzuen ipuinari buruz. Zer pasatu da? Zein da protagonistaren arazoa? Zer gertatzen da inguruan dituen hizkuntzekin? Ze ohitura dute eta ze aukeraketa egiten dute helduek? Zer dira hizkuntzak guretzat?

8. jarduera

Begiratu honako argazki hau, eta, binaka, osatu elkarrizketa bat egoera hori kontuan hartuta:

Gidariari galdetuko diote

ea autobus hori Gasteizera doan,

eta gidariak ez du ulertuko

esan dutena.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Elkarrizketak idatzi ostean, klasean irakurriko ditugu haietako batzuk, eta guztion artean komentatuko ditugu. Zer dela eta ez dute elkar ulertu? Ze hizkuntza agertu dira sortu dituzuen elkarrizketetan? Nolakoa izan da gidariaren erantzuna? Zeintzuk izan dira batzuen eta besteen jarrerak erabilitako hizkuntzekiko?

9. jarduera

Honako komiki tira honetan, zer ari da gertatzen hizkuntzekin? Jarrera eta jokaera berak dituzte galegoarekin eta ingelesarekin?

Nola laburbildu dezakegu ipuinean eta komiki-tiran ikusi eta ikasitakoa? Zer ondorioztatzen dugu horretaz guztiaz?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

10. jarduera

Hedabideetara joko dugu oraingoan. Har ezazue ordenadorea edo sakelakoa, eta bilatu euskarari buruzko, gaztelaniari buruzko eta ingelesari buruzko titularrak. Zer esaten dute gure inguruko egunkarietan hiru hizkuntza horiei buruz?

berria

GARA

EL DIARIO VASCO

Noticias de Bizkaia Deia

Diario de Noticias

EL PAÍS

EL MUNDO

LA RAZÓN

ABC

Bilaketa egin ondoren, elkartu zaitezte hirunaka eta partekatu topatutako titularrak. Zein dira hizkuntza bakoitzari buruz berba egitean agertzen diren ideiak? Zeintzuk dira titularretan agertzen diren hizkuntza bakoitzari buruzko diskurtsoak, iritzi publikoa osatzen dutenak?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

Jarraian dituzue ingelesari buruzko hiru adibide:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

11. jarduera

Segidan, bi iragarki ikusiko ditugu. Hizkuntzak ikasteko aplikazio baten gaztelania ikasteko eta ingelesa ikasteko iragarkiak dira. Ea zer iruditzen zaizkizuen!

- https://www.youtube.com/watch?v=m16hK6uPijE
- https://www.youtube.com/watch?v=6dTN6UWbEKA

Gustatu zaizkizue? Zeintzuk dira hizkuntza bakoitzarekin lotzen dituzten balioak? Badago hizkuntzei lotutako estereotiporik? Zein irudi jartzen dira harremanetan hizkuntza bakoitzarekin? Badago aurreiritzi linguistikorik bideo horietan?

Etxekolanak. Fakultatetik etxerako bidean, begiratu ezazue zuen ingurura: zein da egunero egiten dugun bidean dugun paisaia linguistikoa? Hau da, ze hizkuntzatan daude dendetako izenak, paretetan dauden kartelak, seinaleak…?

12. jarduera



Kontzeptuen inguruko azken jarduera da hau. Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalariari egindako bi elkarrizketa irakurriko ditugu. Ikasle bakoitzak bana. Binaka jarriko gara, eta elkarri kontatuko diogu irakurritakoa. Lehenengo, bakoitzak bere artikulua irakurriko du. Artikulu bera irakurri duen ikaskide batekin argituko dira agertu diren zalantzak, eta kontaketa prestatuko da. Bigarrenik, beste artikulua irakurri duen ikaskideari kontatuko diozue prestatu duzuena, eta berea entzungo. Azkenik, denon artean komentatuko ditugu ideia nagusiak eta elkarrizketatutakoak proposatzen duen ikuspegia; bereziki, botereari, ideologiari eta eskubideei buruzkoak.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Juan Carlos Moreno Cabrera: *Norberaren hizkuntza bestearenaren gainetik dagoela aldarrikatzea da nazionalismoa*.

Miel A. Elustondo (*Administrazioan euskaraz 73*, 2011)

Juan Carlos Moreno Cabrera Hizkuntzalaritza Orokorreko irakasle katedraduna da Madrileko Unibertsitate Autonomoan. Hainbat liburu eta artikuluren egile da, eta beraren lanek behin baino gehiagotan inarrosi dituzte han-hemengo bazterrak. *Nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva* (2008) saiakera da horren adibide behinena. Hizkuntza guztiak berdinak direla defenditzen duen ikerlari honek herdoilik ez du mihian gaztelaniaren nagusigoaren oinarri ahulak kritikatzeko, eta espainiar estatuan hitz egiten diren gainerako hizkuntzen aldeko aldarri egiteko.

Bertatik bertara zuri entzuna: "Nik ideologia halako bat defenditzen dut: Hizkuntza guztiak berdinak dira". Horren aldarri egiten jardun beharrak berak zer pentsa ematen digu...

Hizkuntzak gizartean hitz egiten dira, eta gizartean badakigu zer dagoen, ezberdintasun franko. Neke da, eta zail, hizkuntza eta gizartea, bata bestetik bereiztea, gizartearen muinean sortzen baita hizkuntza, haren arrimuan garatzen, lantzen... Nola bereizi hizkuntzaren gizarte funtzioa, alde batean, eta haren egitura, bestaldean? Jendeak ez du hizkuntzaren egiturarik ikusten, baina bai delako hizkuntza hura gizartean nola gauzatzen den, gizarte harremanetan, erlazio pertsonaletan... Jakina, horretaz bezainbatean, hizkuntza guztiak ez dira berdinak, batzuk halako leku jakinetan erabiltzen dira, beste batzuk ez; batzuk halako zoko ezkuturaino barrentzen dira, beste batzuk ez... Baina kontu horiek denak gizarteari dagozkio, haren egiturari, historiari, egoera politikoari, ideologiari... Hori horrela da, agerian denez. Guztiarekin ere, ordea, hizkuntzak baditu beste hainbat alderdi, berezkoak zaizkionak, intrintsekoak, eta horiek erakusten digute hizkuntza guztiak berdinak direla.

Berdinak, zertan, zein oinarriren arabera?

Hizkuntzalaritza Zientifiko Garaikideak frogatu duen gertakaririk handienen artean dago hizkuntzen arteko berdintasuna: egituraren arabera hizkuntzak ezberdinak izanagatik ere, oinarri komun bat bera partekatzen dute hizkuntza guztiek, eta are garrantzizkoagoa, denek ere gramatika-garapen maila bera dute. Hizkuntzalaritza

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Garaikidearen aurkikuntzarik inportanteena da, ene ustez... XVI. eta XVII. mendeetan, kolonialismoa tarteko, Europako gizarteek bestelako komunitate batzuekin egin zuten topo. Haien bizimodua "atzeratutzat" jo zuten, "ez eboluzionatua" omen, eta, hortik etorri zen uste okerra, alegia, komunitate haiek, nahitaez, gramatikari dagokionean "gutxiago" garatu-tako hizkuntzak zituztela, hizkuntza sinpleagoak, soilagoak, hizkuntzok hitz egiten zituzten gizarteak hala ageri omen zirenez. Jakina, ageri, betiere, Europako jendearen begietara. Ez noa ukatzen gizarte batzuk beste batzuk baino garatuago direna, zenbait alderdiri dagokionean, baina hizkuntzalaritzak zalantza bihirik gabe erakutsi eta frogatua du komunitate txiki haiek hitz egiten zituz-ten hizkuntzek, gramatikari –hots, hiz-kuntzari berari– dagokionez, grekoak, latinak edo bestelako hizkuntza klasikok duen garapen maila bera dutela. Askok gibelondoko galanta jaso zuen hori frogatu zenean, ezbairik gabe frogatu ere. Izan ere, hizkuntzak deskribatzeko metodoa dugu, hizkuntz metodoa, eta ez dago hari itzuri egiterik; zehatza da, eta zorrotza. Eta horixe frogatu du metodo-ak, erran nahi baita, Hizkuntzalaritza Garaikidearen aurkikuntza paregabea: giza komunitate guztien hizkuntzen gramatika egiturek –idazketa garatu duenez duen, eta gizarte faktoreak zeinahi direla ere...– garapen maila bertsua dutela. Ikaragarria da aurkikuntza!

Hizkuntza guztiak berdinak dira, gramatika egitura maila bertsuan gara-tua dute denek. Hizkuntza guztiak ez dira berdinak, hizkuntz komunitate halako batek ez ditu hizkuntza haiek guztiak berdin, ez berdintasunez, erabiltzen...

Gizartean hizkuntza bat baino gehiago denean, gizarte harremanen ondorio da hizkuntzaren egoera. Gizartean ezberdintasunak gertatzen direnez, nagusigo harremanak eta beste, hizkuntza ere ez da bide horietatik aparte ibiliko. Hiz-kuntzen kanpo eragilea da hori: hizkuntza eta komunitatea, hizkuntza eta elitea, hizkuntza eta... Kanpo faktoreak betiere, baina, nolanahi ere, hizkuntzari atxikiak. Izan ere, hizkuntza ez da objektu hutsa, aktibitate bat baizik, eta jokoan da beste hainbat aktibitateren artean, izan sozialak, izan politikoak, ideologikoak edo diskurtsiboak... Erlazio konplexuak gertatzen dira, nagusigo harremanak, gizarte egiturari lotutakoak. Arlo horretan gertatzen dira hizkuntzen arteko ezberdintasunak.

Hortik laster da nazionalismo linguistikoa, zure aztergaietarik bat...

Ideologia da, finean... Nik oso modu berezian definitzen dut. Ez da jendeak uste duena. Ni honela hasten naiz nazionalismo linguistikoa definitzen: halako komunitate batek hizkuntza bat du; komunitate horrek uste du bere hizkuntza hori inguruan hitz egiten direnak baino gorago dagoela; delako lehen hizkuntza hura gorago dagoenez, nagusiagoa denez, komunitateak sinesten du hizkuntza hori gainerako guztien gainetik ezartzeko, inposatzeko, obligazioa duela, eta, kasu, beherago diren hizkuntza haietako hiztunen onerako ere! Inposizio horrek, jakina, halamoduzko kondizionamendu historiko, politiko eta demografikoak ditu atzean. Dena dela, beti bat eta bera da ondorioa: hizkuntza ustez nagusia duela sinesten duen herriak delako hizkuntza hori

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

bestelakoen gainetik ezartzeko joera. Chauvinismo halako bat duzu. Nik nazionalismo linguistiko izena eman diot. Bestalde, nazionalismo linguistikoa ez da hizkuntza subordinatu bat izan eta hura errebindikatzera jotzea. Hori ez da nazionalismo linguistikoa! Nire hizkuntza besteak baino gorago dagoela uste izatea eta, hortik datorrenez, nire herria ere besteak baino gehiago dela uste izatea, bai. Izango dira, noski, heiagora egingo dutenak: "Hori ez duk nazionalismo linguistikoa!". Ados, emaiozu X izena, berdin zait, baina horra, finean, gertatzen dena!

Nazionalismo linguistikoa, esklusiboa da halako eta halako hizkuntzarena?

Ezta pentsatu ere! Jakina, hizkuntzak ez dira inperialistak, erakunde politikoak baizik. Hala ere, metonimiaz baliatuz, laburtuz, hitz egiten dugu horrela. Alegia, ingelesak, frantsesak, errusierak, portugesak, indonesierak, txinerak...era berean jokatzen dute nazionalismo linguistikoari dagokionez. Batzuk inperioa izan dira, eta arrazoi ekonomiko, politiko eta demografikoak tarteko, hainbat lurraldetara hedatu dira, eta beren hizkuntza inposatu dute lurraldean lurraldeko hizkuntzaren gainetik. Beraien hizkuntzaren erabilera ezarri dute, derrigorrez, hura prestigiatu dute, lekuan lekuko hizkuntzak gutxietsirik, bazterturik. Ideologia horri "Inperialismo linguistikoa" izena emana dio Robert Phillipsonek. Halaxe du liburu bat idatzia, *Linguistic Imperialism*, non ingelesaren inperialismoa modu harrigarrian kontatzen duen: nola indartzen den, nola inposatzen, British Councilen egitekoa... Bikain azaltzen ditu inperialismoaren atzean gordean dauden mekanismo ekonomiko, politiko eta ideologikoak oro. Bertatik edan nuen nire liburua egin orduko.

Zergatik du inork bere hizkuntza bestearenaren gainetik jartzeko nahia?

Botere politiko nagusi bat den guztietan–edo gehienetan, bederen–, botere hori halako hizkuntza bati loturik ageri da. Nagusigo politikoa, jakina, hizkuntzaren elkarrizketa aukera berdintasuna bermatzen diguna... gaztelania! Omen. Espainiako nazionalismo linguistikoak gaur egunduen axioma da: "Espainera da espainiar guztiek elkar uler dezaketen hizkuntza bakarra". Baina badiotsut, axioma faltsua da, eta ideologikoa: ni, gaztelania hiztuna naizen honek, galego hiztuna eta katalan hiztuna ulertzeko gai naiz; era berean, galego hiztuna gaztelania ulertzeko gai da. Zergatik diote, beraz, gaztelania dela elkar ulertzeko dugun hizkuntza bakarra? Eta, hala ere, jendeak sinetsi egin du leloa.

Zergatik du jendeak diskurtso hori sinesten, eta ez pekoz gora iraultzen?

Oso delako erosoa. Diskurtso hori sinetsi eta ez du beste hizkuntzarik ikasi beharrik. Kezkarik ez. Munduan dagoen gauzarik erosoena: "Nik ez dut nire burua zertan behartu, galegoz mintzo denak gaztelaniaz ere baitaki, eta katalanez eta euskaraz

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

mintzo denak. Nik besterik ikasi? Ez dut zertan!". Baina, berez, gaztelania hiztunok galegoa eta katalana –ez dut esango euskara, beste sistema batekoa baita– ulertzeko gai gara, hainbat mende iraun duen harremana lagun. Haiek gurea ulertzeko bezain gai gara gu–gaztelania hiztunok– haiena ulertzeko. Kontrakoa esatea, alegia, gaztelania hiztunok ez garela gai, arrazakeria litzateke, gure gaitasun intelektuala gutxiestea. Hortaz, diot, gaztelania hiztunok badugu inguruko hizkuntzok ulertzeko gaitasuna, nahiz eta diskurtso ofizialak esan gaztelania dugula hizkuntza komun bakarra, guztiok elkar ulertzeko hizkuntza bakarra. Jendeari, berriz, ongi zaio diskurtso hori sinestea, erosoa baita, ez baitu ahalegin bihirik egin behar. Eta ez du ahaleginik egin behar, egin nahi, gaztelania ez beste hizkuntza eta kulturak gutxietsi egiten dituelako; mespretxatzen ditu.

Mespretxatzen?

Bai, hizkuntza bat preziatzen dugunean berealdiko ahaleginak egiten baititugu, elkarrizketa eremuraino heldu ohi da. Nagusigoak inposizioa dakar, botere zentral bat ezartzea hainbat lurraldetan. Boterea ez dator isilik, hizkuntza dakar, eta boterearen atzaparra iristen den punturaino helduko da erregimen haren hizkuntza. Hizkuntza, bere horretan, jokoaren parte da, osagai ekonomiko, politiko, historiko, ideologiko eta beste askorekin batera. Hizkuntza ez dago gizarte harremanetatik apartean. Ezin du egon, gizarte gertakaria baita, izan, hizkuntza. Ezinbestekoa da harremanetarako. Gizarte harremanak nolako, hizkuntzaren egoera halako.

Zer diozu nazionalismo linguistiko horrek sortzen dituen mitoen gainean?

Handiena, hizkuntza batzuk gorago dau-dela beste batzuk baino: "Nirea besteen gainetik dago". Menendez Pidalek esaten zuen, adibidez, Iberiar penintsulan erromantzeak eratzen hasi ziren garaian, Gaztelako erromantzea geroan nagusituko ziren soluzio fonetikoak hartzera zuzenduta zegoela. Zioen gainerako erromantzeek porrot egitera zuzenduta zeuden apustu fonetikoak egin zituztela. Menendez Pidalek esana da, idatzia. Baina hori a posterioriko ideologia bat baizik ez da: "Hemen bada nazio bat, nagusia, Gazte-lakoa –edo Espainiakoa–, hizkuntza bat duena, nagusia...". Hori nola edo hala justifikatu beharra dago, ordea, eta, beraz, hizkuntza jaio zen garaian bertan delako hizkuntza nagusi horrek ezaugarri intrintsekoak izatea ezinago justifikazio historiko egokia zaigu. Mitologia puru-purua, jakina. Oraingo egoera zuritu behar denez, iragana bera zuritzen da. Biribila Menendez Pidalena!

Gaur egun...

Gaur egun indarrean dagoen mitoa, berriz, gaztelaniaz besterik ez dutela elkar ulertzen espainiar estatuko pertsona guztiek. Faltsua. Hizkuntza komunaren mitoa: hizkuntza

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

demokratiko bakarra, guztiok berdintzen gaituena, guztioi dirutza gastatzen, hura ikasteko. Hori da ingelesaren kasua. Zenbat diru gastatzen du jendeak ingelesa ikasten, zenbat den-bora ematen dio? Balio handia ematen diote. Alegia, inork zer edo zer egiazki baloratzen duenean, garrantzizkotzat jotzen, ahalegina egiten du. Espainian, ordea, "gurea –gaztelania, jakina– baino gutxiago" diren hizkuntzatzat hartuak dira galegoa, katalana eta euskara, eta ez du merezi haiek ikastea, ahaleginik egitea ere! Ez dugu aberastasuna preziatzen, dibertsitatea... Mespretxua, eskumenean duguna baloratzen ez dugun heinean. Baina mespretxua betiere. Hitz egin euskaraz Madrilen, laster baztertuko zaituzte, aurpegiratuko dizute: "Gaztelaniaz badakizu, hitz egin gaztelaniaz!". Mespretxua, zenbaitetan, "gutxiago" den hizkuntza horretako hiztunen gogoraino sartu da: "Gureak ez du balio. Lotsa ematen dit galegoz –halaber, euskaraz, katalanez– hitz egiteak!".

"Nirea" ez besteko hizkuntzen zailtasuna, mitoa da?

Ez da zailtasun kontua, motibazioa bai-zik. "Euskara zaila da". Motibazioaren arabera... Ni euskaraz ikasten hasi nintzenean, adibidez, konturatu nintzen han eta hemen entzuten nituen izenek esanahia zutela. Zubizarreta, Garaikoetxea, Koipe, Ikusi, Otsein... bat-batean, esanahiaren jabe egin zitzaizkidan. Horrek neure hizkuntzaren gainean pentsatzeko ordu arte ez bezalako dimentsioa eskaini zidan! Aberasgarri gertatu zitzaidan, zeharo. Fantastikoa!

Mitook hizkuntzon normalizazioa galarazten dute, zailtzen?

Dudarik gabe. Giro horretan sortua da inposizioaren inguruko kanpaina. Inposizioa, katalana inposatu nahi omen da Katalunian, euskara Euskal Herrian, galegoa Galizian. Jende askok sinetsi egiten du! Horixe burugabekeria! Kontua da gaztelania izan dela, denbora luzean. Hizkuntza ustez nagusia duela sinesten duen herriak delako hizkuntza hori bestelakoen gainetik ezartzeko joera du elkarrizketa hizkuntza menderatzailea hiru herrialdeotan. Eta, gaur egun, gaztelaniaren nagusigo erabateko hori ez da hain erabatekoa estatuan, beste hizkuntzak ere bere burua erakusten ari baitira. Askok ezin du hori onean eraman, nonbait. Nire iritziz, ongi da gizarteak eleaniztun izatea, baina hizkuntza bat nagusitu behar baldin bada, izan dadila bertakoa: katalana, euskara edo galegoa. Ideala litzateke hizkuntza guztiak maila berdinean egotea baina ez dut horrelako gizarterik ezagutzen: beti bada hizkuntza bat besteak baino gehiago erabiltzen dena. Bi hizkuntza erabiltzen direla, primeran, baina izan dadila bertakoa nagusia. Logikoa iruditzen zait, nahiz eta askok ez duen ni bezala pentsatzen. Are gutxiago Madrilen...

Espainiako hiriburuan, erdigunean...

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Niri, esaterako, nazionalista naizela esan izan didate, nazionalismo linguistikoaren kritika egiten dudalako! Esan dut zer den nazionalismoa: norberaren hizkuntza bestearenaren gainetik dagoela aldarrikatzea. Ez dut ezagutzen katalanik, katalana gaztelaniaren gainetik dagoela esaten duenik. Katalanez bizi nahi duten katalanak besterik ez ditut ezagutzen, katalanez bizitzeko eskubidea dutenak, ni gaztelaniaz bizi naizen modu berean bizitzeko eskubidea dutenak. Eta hori ezinezkoa da Katalunian, ezinezkoa da Euskal Herrian, ezinezkoa Galizian.

“Hizkuntza, informazioa transmititzeko mekanismoa besterik ez da”, diote...

Ez hori bakarrik. Inperialista linguistikoek sartu nahi diguten ideia da hori. Hizkuntzak komunikazio-tresna direla diote haiek, eta, guztiok bata bestearekin komunikatzekotan, ingelesa ikasteko esaten digute. Baina hori baino gehiago da hizkuntza. Lehenengo, ez da tresna, aktibitate multzoa baizik. Ez da gauzakia, ez da lapitza, ez da trena... Badira tren batzuk –ingelesa, kasu– herrialde askotatik barna dabiltzanak. Beste batzuk –jo dezagun, euskara–, beren lurralde ñimiñoan baizik hara-hona dabiltzanak. Baina hizkuntza ez da trenez tresna, giza aktibitate askoren multzoa baizik. Aktibitate horien artean komunikazioa dago; baina ez hori bakarrik, baita adierazpena, kultura, psikologia eta beste. “Informazioa transmititzeko mekanismoa...” hori horrela balitz, bai, hizkuntza bat eta kito, elkarri informa-zioa transmitituko genioke –jakin egin behar nork nori zer transmitituko liokeen!– eta aurrera. Hizkuntzak kultura, ideiak, mundu ikuskera... ditu bere bai-tan. Horrela ez balitz, laster ginateke George Orwellen 1984ko hartan! Komunikaziorik egiazkoena ez da gertatzen ideia berdinak ditugunon artean, hizkuntza bat bera –eta are, hizkelgi bat bera– dugunon artean... Komunikazioa izatekotan, ezberdintasuna behar dugu, komunikazioa sorkuntza baita, eta horretarako nahitaezko da dibertsitatea. Sorkuntza da gakoa: mezuak sortzen ditugu, inork agindu gabe. Ideologia inperialistak mezu bat bakarra dagoela sinetsarazi nahi digu, hizkuntza bat bakarra, bat bera guztiontzat. Eta diot nik: hizkuntza bat bera, ideia berak, ikusmolde bera... Hor ez dago komunikaziorik. Besteren ideietara egokitze prozesua da komunikazioa, besteren pentsatzeko eta adierazteko modura geure buruak egokitzea. Hortxe sortzen da giza kreatibitatea, sorkuntza eta, finean, komunikazioa.

“Ez da existitzen hizkuntza globalik, ideologia hutsa da”

“Espainiako Estatuan, herritar asko dago elebakartasunean hezia eta gainera elebakartasun horretaz harro dagoena, eta horrek ideologia supremazista islatzen du”. Mossoen buruak katalanez hitz egiteak hedabide espainiarrak haserretu zituela abiapuntu hartuta, hizkuntzen ideologiaz eta politizazioaz galdetu diote Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalariari. Pasarte batzuk ekarri ditugu euskaratuta:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

“Ideologia supremazistak hala pentsatzen du: ‘Eskuzabalak gara eta uzten diegu Katalunian katalanez hitz egiten, Galizian gailegoz… baina guk jartzen ditugu mugak’, eta iruditzen zaigunean hizkuntza horiek erabiltzen ari direla guk jarritako mugetatik kanpo, orduan haserretu egiten gara eta esaten diegu errespetu falta dela. Estatu bakoitzari hizkuntza bat dagokiola pentsatzea kontzeptu politikoa da, errealitatean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten delako herrialde beraren baitan (bertakoak edo kanpotik ekarriak) eta eleaniztasuna da ohikoena”.

Nola erakutsiko diet nire seme-alabei hizkuntza lokal bat, mugatzen nauena?

“Hizkuntza gutxituak, eskualde-hizkuntzak, dialektoak… kontzeptu objektibotzat erabiltzen ditugu, baina ideologia supremazistaren pean eraikitako kontzeptuak dira: hizkuntza bat dago, ona, denek erabiltzen dutena eta komunikatzeko balio duena, eta gero daude beste hizkuntza batzuk identitatearekin lotura handiagoa dutenak komunikazioarekin baino, zatitu egiten dutenak… Eskualde-hizkuntza kontzeptua esaterako: munduan hitz egiten diren hizkuntza guztiak dira eskualdeko hizkuntzak, norbere eskualdeko azentu eta ezaugarri espezifikoekin hitz egiten delako. Norbaitek esango du: ‘Nola erakutsiko diet nire seme-alabei eskualdeko hizkuntza bat, lokala, mugatzen nauena?’. Baina ez da existitzen hizkuntza globalik, ideologia hutsa da hori; espainola katalana bezain erregionala da. Ingelesa adibidez hizkuntza uniformetzat daukagu, baina faltsua da, munduko hizkuntzarik zatikatu, dibertsifikatu eta erregionalizatuenetakoa da, barietate pila bat ditu. Esatea ingelesa komunikazio unibertsalerako hizkuntza dela, ideologia supremazista eta inperialistaren isla baino ez da”.

“Hizkuntzak ez dira hiltzen, asasinatu egiten dituzte”

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

"Hizkuntza jakin bat lotzen da garapen ekonomikoarekin, aurrerapen sozialekin, eta mekanismoak behartzen gaitu gure hizkuntza alboratu eta beste horregatik ordezkatzera. Amerikako indigenei esan zitzaien garapena nahi bazuten espainola hitz egiteko, eta orain esaten zaie espainola ezetz, ingelesa hitz egin behar dutela. Aurreko mendeko hizkuntzalari handi askok hizkuntza ugaritan publikatzen zituzten artikuluak, eta gaur egun hori ezinezkoa da: gure lana aintzat hartzea nahi dugun hizkuntzalariok ingelesez publikatu beharra daukagu. Eta horrek izen bat dauka: inperialismo linguistikoa. Hizkuntza bat hitz egiten duen pertsonak uko egiten dio hizkuntza horri biolentzia ekintza baten ondorioz, normalean biolentzia psikikoa, konbentzitzen zaituztelako zure hizkuntza gutxiago dela, ez duela balio eta alboratu egin behar duzula. Hizkuntzak ez dira hiltzen, hizkuntzak asasinatu egiten dituzte".

"Ingelesak Europar Batasuneko hizkuntza ofizial izateari utziko dio"

"Kuriosoa da: Britainia Handia Europar Batasunetik ateratzen denean, ingelesak Batasuneko hizkuntza izateari utziko dio, estatu bakoitza ofizialki hizkuntza bakar batek ordezkatzen duelako Europar Batasunean (inperialismo linguistikoa hor ere, herrialde bakoitzaren aniztasun linguistikoa ukatzen baitu) eta Europar Batasunean Britainia Handiak baino ez du ordezkari ingelesa. Hizkuntza batek mendeetan agindu dezake eta gero agintzeari utzi. Frantsesarekin, latinarekin, aramearrarekin… gertatu da. Ingelesa etorkizuneko hizkuntza dela esatea faltsua da".

http://www.argia.eus/blogak/mikel-garcia/2017/09/04/ez-da-existitzen-hizkuntza-globalik-ideologia-hutsa-da/

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Hauek dira orain arte ikusi eta ikasi ditugun kontzeptu soziolinguistikoak:

1) Hizkuntza-identitatea

2) Hizkuntza-komunitatea

3) Hizkuntza-ohiturak

4) Hizkuntza-hautua

5) Hizkuntza-jarrerak

6) Hizkuntza-jokaerak

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

7) Hizkuntza-diskurtsoak

8) Hizkuntza-iruditeria

9) Hizkuntza-boterea

10) Hizkuntza-ideologia

11) Hizkuntza-aurreiritziak

12) Hizkuntza-eskubideak

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

13. jarduera

Elkartu binaka edo hirunaka, eta osatu itzazue aurreko kontzeptuen definizioak. Azterketan galdera bat egongo da ikasitako kontzeptuak aplikatzeko. Artikulu bat irakurriko duzue, eta, bertan, hizkuntzei buruz hitz egingo da. Esaldi batzuetan aukera izango da kontzeptuei buruz hitz egiteko, eta bertan agertzen dena kontzeptuokin lotzeko.

14. jarduera (lan ebaluagarria)

Gaitasun soziolinguistikoaren atalarekin amaitzeko, euskara sustatzeko 2015etik 2020ra egin diren ekimen garrantzitsu batzuen aurkezpenak egingo dituzue. Horretarako, taldeak egingo dituzue, eta egokitu zaizuen ekimenari buruzko informazioa bildu, kideen artean lana banatu, eta aurkezpena prestatu eta egingo duzue.

A) Lutxo Egiaren performancea eta *Transitoak* bloga:
http://www.berria.eus/paperekoa/1736/034/001/2015-07-14/askoz_gehiago_dago_emateko.htm

https://www.youtube.com/watch?v=79tOSKHUP3g https://www.berria.eus/blogariak/transitoak/

B) *Aldahitz* proiektua (Patxi Jauregi eta Pablo Suberbiola)
http://www.udaltop.eus/documents/192363/1442855/Ulermena_aktibatzen_testua_AZKENA.pdf/4dda377c-73b0-406a-a0d7-2c6c2ceb781b

C) Bagera elkarteko txostena: *Nola egin dute?* (Agurain, Aiaraldea, Añorga, Arrigorriaga, Astigarraga, Egia, Hernani, Lasarte, Piratak, Trapagaran)
https://issuu.com/bageraelkartea0/docs/nola_egin_dute_eta_ekitea_da_kontua

E) Euskaraldia proiektua www.euskaraldia.eus
https://www.berria.eus/paperekoa/1942/010/001/2019-06-30/euskaraldia-banakoa-eta-kolektiboa.htm

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKEZPENEN EBALUAZIO-FITXA

1. Deskribatu laburki zer egin duten ikusi dituzun taldeek haien aurkezpenean.

2. Gaiaren azalpena argia izan da? Ikusi eta entzundakoarekin lagun bati arazorik gabe kontatu ahal izango zenioke? Idatz ezazu esaldi batean zeri buruzkoak izan diren gaien aurkezpenak.

   _____

   _____

   _____

3. Aurkezpenaren luzera egokia izan da (ez da laburregia izan, ezta luzeegia ere)?

4. Taldekide guztiek hartu dute parte? Antzeko denbora erabili dute hitz egiteko?

5. Hitzez egindako aurkezpenari laguntza emateko euskarririk erabili dute (power-pointa edo prezia, esku-orriak, audio edo bideoak, jolasak, ariketak)?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

6. Egoki erabili dute ahotsa (ez altuegi ez baxuegi, entonazioa zainduz eta ez monotonoki erabiliz, ez bizkorregi ez motelegi, geldialdiak eginez eta ez dena jarraian)?

7. Gorputz-adierazpena egoki erabili dute (ikus-entzuleei begira egon dira edo ez, mahai atzean edo alboetan ezkutatu dira edo erdian kokatu dira, protagonista pantaila edo taldekideak izan dira, eskuak-besoak-sorbaldak zabalik edo itxita izan dituzte)?

8. Hizkuntza egoki erabili dute (euskara hutsez aurkeztu dute edo gaztelania tartekatu dute, erregistro formala erabili dute edo lagunartekoa, gaiari buruzko hizkera teknikoa erabili dute, zailtasunak izan dituzte euskara batuan hitz egiteko edo behar zituzten hitzak topatzeko, akatsak egin dituzte)?

9. Elkarreragina sustatu dute (saiatu dira ikus-entzuleak inplikatzen eta dialogo moduko hitzaldia egiten, monologo modukoa saihestuz)?

10. Taldearen aurkezpenak izan du zerbait berezia, desberdina, pertsonala, gogoangarria egin duena haien aurkezpena?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Gaitasun soziolinguistikoan kontzeptu gako batzuk ezagutu ditugu, hizkuntzei beste modu batean begiratzeko aukera eman digutenak. Ados zaude baieztapen honekin? Arrazoitu ezazu zure erantzuna.

Zuen artean gaztelaniaz hitz egiteko ohitura duzue eta euskarara pasatu nahiko zenukete? Hemen duzue aukera! Erronka bat proposatzen dizuet praktiketatik bueltatzen zaretenerako: BERBASAREA osatzea klasekideekin. Sortu talde txiki bat (3tik 12rakoa), eta erabaki nortzuk izango diren EUSLEAK (beti euskaraz egingo dutenak). Besteak euskaraz egiten saiatuko dira, baina gaztelaniaz ere egin dezakete. Taldearen %20 izango da euslea. Aste bakoitzaren amaieran egingo duzue esperimentuaren ebaluazioa, eta lehen hilabetearen amaieran aldatuko dituzue eusleak. Bi hilabete iraungo ditu esperimentuak. Bigarren hilabetearen amaieran balorazio orokorra egingo duzue. Ea zuen artean euskaraz hitz egiten laguntzen dizuen!

Material osagarria

Zer gertatzen da hizkuntza hegemoniko eta hizkuntza gutxitu baten artean aukeratu behar duzunean? Ikus honako bideo hau, *estres linguistikoa* zer den jakiteko. Inoiz gertatu zaizu horrelakorik?

http://www.badubada.com/eu/erakusketa/bizikidetza_estres_linguistikoa.php

•

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Hizkuntza-eskubideei buruz hitz egin genuen azken jardueran. Jarraian duzu Hizkuntza Eskubideak bermatzeko Protokoloa (2016), informazio gehiago izan dezazun: http://protokoloa.eus/wp-content/uploads/2017/06/protokoloa_eu.pdf
- Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf
- VI. Inkesta Soziolinguistikoa (2016) https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557
- Euskara: jarrerak eta iritziak. Eusko Jaurlaritzaren txostena (2015) http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_14tef7/es_def/adjuntos/14tef7.pdf
- Askoren artean. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza http://www.soziolinguistika.eus/files/eskuliburua_osoa.pdf

Errepaso orokorra egiteko baliagarria izan daiteke *Korrika 21*eko mezua irakurtzea. Bertan, oihartzunak topatuko dituzu ikasitako kontzeptu soziolinguistikoen oihartzunak topatuko dituzu.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

klika! SISTEMA ERAGILEAN

Euskara gaur egun arte,
ta Gasteizaino KORRIKA,
ekarri dugunoi: biba,
gora, eutsi, goza...

...KLIKA!
Hizkuntza ez da edukitzekoa.
Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika.

Beraz, *KLIKA!*
Instalatu eta elika!
Euskara, ez da euskararen
gauzetarako aplikazioa.
Euskarak behar du
herri honen Sistema Eragilean.
Memoria handiko lur honen
hizkuntza beti eguneratua, eta software librekoa.

Euskara, bestelakoa baita...
Hain zuzen, besteak bezain bestelakoa.
Bestelakoa eta besteak bezalakoa.

Baina besteekiko badu alde bat:
euskarak dena du aurka;
eta horrexegatik juxtu, dena du mauka!
Dena baitu sortzeko, euskarak,
ia dena du-eta sortzeke.
Dena du egiteko, euskarak, dena du egiteke.

Hizkuntza bat dugu ahulguztiduna.

...
Hala ere, korrika egiten dugu.
...
Izan ere, hainbeste maite gaituzte erakundeek,
alderdi politikoek, komunikabideek...
korrika gabiltzala...
...
Zergaitik gutxietsiko ote gaituzte hainbestetan
oinez gabiltzanean...?

Ikusiko da... ea euskara
arreta osoan gaur den,
bihar erdi, etzi laurden,
ta laster berriz al gauden
azkentasunetan aurren.

Korrika egiten dugu, lehenetik eta gerorantz.
Korrika egiten dugu,
Euskal Herria eta elkar ezagutzeko.

Korrika egin, munduari gure oinekin eragiteko.

Egin, eragiteko.
Eragin, eginarazteko.
Norbanakoak egin.
Herri mugimenduek eragin.
Erakundeek eginarazi.

Egin, eragin, eginarazi.

Aukerak eskaini eta euskara eskatu.
Datozenei ere eman euskaran ostatu
eta eskertu
eta ospatu.
Gu elkartzen gaitu zer ospatuak.
Gu, eta *Gu* honen baitako *Gu*-ak:

Umeak, gazteak, helduak, zahartuak...
Ahoskera berri eta zarratuak.

Zuek eta *haiek*,
zakurrak, katuak...
Sardeak, mantalak, *gigak* eta datuak.
Azalak, ahotsak...

Sei kontinenteetan sakabanatuak,
Sei kontinenteetatik guganatuak.

Arnasgunekoak, oxigenatuak.

Erribera idortu ta mahats zanpatuak...
...elebesteratuak.
eta neskenegunak eta zapatuak.

Euskaraz sortuak
eta euskararatuak.

Mundu bat euskarak,
mende erdia Euskara Batuak,
eta ehunka milaka bizitza eta gogo
EUSKARAK BATUAK.

Maialen Lujanbio Zugasti

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

4. GAITASUN PRAGMATIKOA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Practicum alditik bueltan etorri berriak zarete, eta Haur Hezkuntzako ikastetxe batean behaketa egiten ibili zarete hilabetez. Zer ikusi duzue zuen ikasgelako maisu edo maistraren komunikazio-gaitasunean, komentatzeko modukoa? Eta ikasleen komunikatzeko moduetan? Nola komunikatu zarete zuek ikasle, irakasle eta gurasoekin?

Pragmatikaren definizioa ematerakoan, Ch.W. Morrisen *Foundations of the Theory of Signs* (1938) lana aipatu ohi da. Morrisen arabera, pragmatika, semantikarekin eta sintaxiarekin batera, diziplina linguistikoa da. Bere ustez, triada batean oinarritzen da hizkuntza: zeinua (sintaxia), izendapena (semantika), eta hartzailea (pragmatika). Hau da, hizkuntzak adierazten du zerbait norbaitentzat.

Blum-Kulka-k (1999), ordea, testuinguruari erreparatzen dio, eta soziopragmatikaz (hiztunak bere kulturak baldintzatuko du komunikatzerakoan) eta pragmalinguistikaz (fonetikak, fonologiak, sintaxiak, lexikoak eta semantikak esanahian izango dute eragina; xedeak estiloa baldintzatuko du) aritzen da.

Bachmanek (1990) hizkuntzaren erabilera ipini zuen erdigunean: zer esaten dugu zein helburu lortzeko zein egoeratan.

Beraz, pragmatikak hizkuntzaren erabilera aztertzen du enuntziatua, testuingurua eta solaskideen arteko harremanak kontuan izanda. Hots, hiztunek diskurtsoa testuinguru jakinetan sortzen dituzte diskurtsoak, eta pragmatikak hori aztertzen du. Hori dela eta, garrantzitsua da hizkuntzaz gain elementu estralingusitikoak kontuan izatea. Solaskideek dituzten ezagutzekin, sinesmenekin, iritziekin, osatuko dute jaso duten mezua.

Pragmatikaren barruan J. L. Austin-en (1962) *Hizketa Ekintzak* ditugu. Horren arabera, hizkuntza ekiteko modu bat da, intentzio jakin bat duena, eta testuinguruaren arabera interpretatzen duena hartzaileak.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Hizkuntzen didaktikan ikuspegi pragmatikoak, estrukturalismoak proposatutakoaren aurkakoa, komunikazioan oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntza ekarri du. Elkarreragina eta negoziazioa izango dira perspektiba honek ekarriko dituen beste bi kontzeptu giltzarri.

Hurrengo saioetan gaitasun pragmatikoa landuko dugu, bi norabidetan. Alde batetik, diskurtsoaren analisia egiten ikasiko dugu ikuspegi honetatik begiratuta: irakasle zaretenean zuen gaitasun komunikatiboa hobetzeko (ondo ulertu behar dugu esaten digutena eta egoera zein den, eta zeintzuk diren gure solaskideak ahalik eta ondoen ezagutu, diskurtso onena sortzeko). Beste alde batetik, irakaslearen diskurtsoak landuko ditugu, bereziki gurasoekin bilerak egiten ditugunean nola bideratu behar ditugun jakiteko, eta baita jendaurrean ahozko azalpenak ematea ere.

Diskurtsoaren analisiaz arituko gara, irakasle izateko prestakuntzaren parte delako egoki komunikatzea. Horretarako, ahal bezain beste sakondu beharko dugu beste pertsonekin elkar eraginean ari garenean lanean (haurrekin, gurasoekin, lankideekin…) ahalik eta ondoen ulertzeko komunikatzen digutena, ahalik eta ondoen jasotzeko egoera jakin bakoitzean eta pertsona zehatz bakoitzarekin izaten ditugun hartu-eman komunikatibo eta diskurtsiboak. Beraz, ez da nahiko izango esandako hitzak ezagutzea; ez gara mugatuko behatzera; identifikatuko ditugu elkarrizketa bakoitzean erabiltzen eta trukatzen diren moldeak, estiloak, esaerak, ageriko eta ezkutuko esanahiak aletuz, eta erabiliko ditugu gure errepertoriotik une bakoitzean egokienak diren hitzak, begiradak, jarrerak, edo ahots-tonuak.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

5. DISKURTSOAREN ANALISIA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Komunikazioa esanahien trukea bezala ulertzen badugu, esanahi horiek ondo deskodetzeko baliabideak beharko ditugu irakasle-jardunean eta bizitzan, oro har. Horretarako, kontuan izan beharko ditugu honako osagai komunikatibo hauek:

- Igorlea eta hartzailea: solaskideak
- Kodea eta testuingurua
- Asmoa eta interpretazioa
- Adierazpena eta inferentzia
- Maila kognitiboa eta maila materiala
- Joko intentzionala

Horren ondorioz, diskurtsoaren analisia honako hau izango da:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

Praktika diskurtsiboak ulertzeko modu bat

Komunikazio gaitasuna garatzeko aukera

Egoera komunikatiboak aztertzeko tresna bat

15. jarduera



Diskurtsoaren analisiarekin hasteko, kapitulu bat irakurriko dugu: “La lengua como medio” izenburua duena. Aurreko kapitulu batean erakutsi digute hizkuntza sistema izan daitekeela; irakurriko dugun kapituluan hizkuntza bitartekoa izan daitekeela ikasiko dugu. Hortaz, bigarren ikuspegi hau duen testua irakurriko duzue jarraian. Lehenengo, ziurtatu dena ondo ulertu duzuela elkarrekin zalantzak argituz, eta, gero, ideia nagusiak atera eta eskema bat egin binaka. Hau da kapituluaren erreferentzia bibliografikoa:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900



Sanchez, S. eta al. (2018). La lengua como medio: la comunicación linguüística. IN *Complementos para la formación en lengua y literatura*. Madril: Síntesis. 75-100.

Diskurtsoaren analisia egiteko, Hymes-ek 1972an SPEAKING metodoa proposatu zuen, eta hortik aurrerako proposamenak eredu honetan oinarritu ziren aldaera berriak eskaintzeko.

- Situation (testuingurua)
- Participants (parte-hartzaileak)
- Ends (helburuak)
- Act secuences (ekintza-sekuentziak)
- Key (kodea)
- Instrumentalities (tresnak)
- Norms (arauak)
- Genre (generoa)

Diskurtsoaren analisia egiteko, eredu horren sinplifikazioa erabiliko dugu: testua, testuingurua, partaideak eta helburuak.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

TESTUA

- **Aukera linguistikoak** egiteko askatasun-maila (planifikazioa/inprobisazioa).
- Kanalizazioa (ahozkoa, idatzizkoa, tartekoa).
- Kodearen esanahia (semantikoa, konbentziozkoa) eta testuinguruaren esanahia (pragmatikoa, interpretagarria).
- Seinale linguistiko(akustiko/bisual)a + irudikapen kontzeptuala.
- Informazio ez-linguistikoarekin osatu behar da esanahia.
- Prozesu inferentzialak (esplizitua eta inplizitua azaldu).
- Hizkuntza ez-literala: metaforak, ironia, umorea.

Egitura, gaiaren garapena, txanden banaketa

TESTUINGURUA

- Elkarrizketaren **ainguraketa.**
- Espazio mentala eta espazio soziala.
- Deixia.
- Partekatutako espazio soziala: partekatutako ezagutza (iruditeria).
- Markoak (eskema bisualak) eta gidoiak (ekintza estereotipatuak).
- Egoera instituzionala (ala ez), (in)formala, publikoa/pribatua.
- **Agertoki psikosoziala**

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

PARTAIDEAK

- Harremana eta distantzia (hierarkia eta gertutasuna).
- Solaskideen aldez aurretiko jarreren arteko elkarreragina.
    - Elementu kognitiboak (mundu-ikuskerak).
    - Elementu emotiboak (alderdi afektiboa, parte-hartze gradua).
- Kortesia, arau sozialak, ohiturak.

Rolak eta harreman motak

HELBURUAK

- Negoziazioa
- **Xede soziala eta norbanakoaren xedea**
- **Hizketa-ekintzak**
    - Lokutiboa
    - Ilokutiboa
    - Perlokutiboa

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

16. jarduera

Elkarrizketaren analisia egiten ikasiko dugu atal honetan. Hasteko, elkarrizketa bat sortuko dugu binaka, ohikoa dugun moduan: watxapa erabiliz. Bietako batek mesede bat eskatuko dio kideari; besteak ezetz esango dio. Amaitzean, bidali “pantallazoa” irakasleari emailez. Aurrerago aztertuko ditugu aukeratutako watxap batzuk, elkarrizketa batzuk, klasean, guztion artean. Beraz, elkarrizketa sortzean, kontuan izan gero publikoa izango dela, denok irakurriko dugula (eta ez hitz egin gorde nahi dituzuen kontuei buruz).

ELKARRIZKETAREN ANALISIA

Elkarreragin sozialaren funtzionamendua ulertzeko egiten da elkarrizketaren analisia; hau da, komunikazio sozialera hurbiltzeko metodo bat da: H. Sacks-ek, E. A. Schegloff-ek, eta G. Jefferson-ek abian jarri zuten azterketa sistematikoa. Eguneroko bat-bateko elkarrizketak antolatzeko modua, garatzeko era eta solaskideen rolen banaketa dira osagai nagusienak analisi mota honetan.

Egoera errealetan gertatzen diren elkarrizketak ditu aztergai, eta txanda hartzeak, isiluneak eta berbideraketak dira, besteak beste, aztertuko dituen alderdiak. Grice-ren kooperazio-hatsarreen arabera, hauek dira elkarrizketetan parte hartzean jarraitu beharko genituzkeen jarraibideak: esan ezazu egia, labur berba egin, garrantzitsua dena adierazi, eta argia izan.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Elkarrizketen analisia egiten dugunean, honako hauei begiratuko diegu: txanda-hartzeak, txanda-emateak, txanda-zapaltzeak, txanda aldatzeko une egokiak (trantsizio guneak), ondoko pareak (galde-erantzun formatuko elkarreraginak), isiluneak (eta horien esanahia), berbideratzeak eta konponketak (ulermen-arazoak konpontzeko adibidez), informazio-aurreratzeak, informazio-atzeratzeak, girotze-prestatzeak (gonbidapen edo eskaera bat egin aurretikoak), espero diren eta ez diren erantzunak (bai ala ez jakiteko galderak, adibidez)…

17. jarduera

“8etan Bulen.” esaldia entzutean, zer datorkizu burura? Nork esan dio nori zure gogoan? Non daude? Ze unetan? Zein da esaldi horren helburua? Eta solaskideen arteko harremana?

Jarraian dituzu hiru argazki. Hirurak dira “Bule” horrekin identifikatu daitezkeen lekuak. Zertaz konturatu zara aurreko esaldia eta honako irudi hauek konparatzean?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

18. jarduera

Dendetan “zabalik” kartela topatu ohi dugu. Hala ere, honako kartel honetakoa berezia da. Zergatik? Zer kontatzen digu dendari horri buruz? Zer eskatzen dio hurbiltzen den bezeroari? Ze egoera komunikatibo bideratzen du kartel horretako testuarekin?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

(*Zabalik gaude. Mesedez, jo ezazu atea suabe, eta itxaron pazientziaz*).

19. jarduera



Testuari erreparatu diogu aurreko jardueran, eta, orain, ipuin bat irakurriko dugu. Ipuin horretan, izartxo-lerroak topatuko dituzu. Hor irakurketan geldiunea egingo dugu, eta ondoko ikaskideekin hitz egingo dugu bertako pertsonaiei buruz eta egoerari buruz hipotesiak eginez: nortzuk dira elkarrekin hizketan ari direnak? Zertan ari dira?



http://www.susa-literatura.eus/liburuak/narr7708

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Nahiago nuke gezurrik ez esan

Gizonak bostekoa eman dio. Andrea parean eseri da, poltsa zangoen artean ipini eta orpoak agerian utzi ditu takoi baxua duten zapatetan. Gizonak betaurrekoen kristalen gainetik begiratu dio.

— Lasai zaude?

— Bai.

— Ur pixka bat?

— Ez.

— Kafea, tea...

— Ez.

— Esther Salarrue Arribalzaga.

— Bai.

— Lasai orduan?

— Baietz uste dut.

— Barka horrela hasteagatik: inoiz aborturik izan duzu?

— Ez.

— Hala ere jakingo duzu zein den prozedura.

— Ez.

— Duela bi urte arte abortua ez zegoen legeztaturik Estatuan. Hobeto esanda, legeak onar zezan paper bat sinatu behar zenuen abortua izan aurretik, esanez ez zenuela zure burua ume bat zaintzeko gai ikusten. Legearen zirrikituak profitatu, badakizu, zigorrak ekiditeko.

****

— Hemen antzeko zerbait egin behar dugu orduan.

— Bai. Batez ere zure sendiari begira.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Jakina.

— Gaurkoa ez da xamurra izango. Galdera mordoa erantzun beharko duzu. Ez dago beste modurik.

— Ondo.

— Prest?

— Aurrera.

— Galdetegi honen bitartez frogatu beharko duzu benetan ez dagoela beste biderik.

— Ez naiz gezurrak esatera etorri.

— Baina esan ditzakezu.

— Ez da beharrezkoa izango.

— Ez duzu gezurra esateko ardurarik izan behar. Zure familiaren onerako izango da, ez ahaztu.

— Egin dezagun aurrera, mesedez.

— Ezkonduta?

— Bai.

— Seme-alabarik?

— Bi mutiko.

— Adina?

— Hamaika eta zazpi.

— Senarrak lanpostu finkoa du?

— Bai. Esportazio arduraduna da turbina enpresa batean.

— Asko bidaiatzen du.

— Bai.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Horrek gauzak konplikatzen ditu. Zure gurasoak bizirik daude?

— Ama bai.

— Eta zure senarrarenak?

— Aita eta ama.

— Seme-alabekin harreman ona daukate aitona-amonek?

— Gure ama Malagara joan zen bizitzera txikiena jaio zen urtean, beraz ez du ia harremanik. Senarraren gurasoek bilobekin izan ohi den harremana dute.

— Eta non bizi dira?

— Herrian.

— Zuk lanik egiten duzu?

— Irakaslea naiz, institutu batean. Euskara irakasten dut.

— Ikasgai polita.

— Inori ez zaio interesatzen, gaur egungo umeak idiotak dira.

— Gure bezeroen artean irakasle asko dago.

— Zuen bezero izandako batek hitz egin zidan zuei buruz. Julian Arozenak. Etika eta Filosofia irakasten zuen.

— Oroitzen dut, tipo zintzoa zen, azkarra.

****

— Jabetzei buruz hitz egin behar didazu orain.

— Bizi garen etxea nire gurasoena zen, eta eskriturak amaren izenean daude. Gero Landetan bungalow bat erosi genuen duela urte batzuk, eta hori senarra eta bion izenean dago.

— Eskritura horiek beharko nituzke. Eta gurasoen etxekoak ere bai.

— Ez dago arazorik.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Zenbat metro karratu ditu bizi zareten etxeak?

— Ehun eta berrogeita hamar inguru.

— Autorik?

— Bi.

— Zein markakoak?

— Nirea Honda Civic eta senarrarena Renault Espace berri bat.

— Beste jabetzarik zure izenean?

— Uste dut garajea nire izenean dagoela.

— Benetan ez dakizula?

— Ez.

— Zenbat autorentzako lekua?

— Bi.

— Marra edo hormak?

— Hormak.

— Ondo... Psikologoarenean izan al zara inoiz?

— Behin, bigarrenez erditu eta gero.

— Zer dela eta?

— Ez dakit oso ondo. Nekaturik nengoen beti.

— Eta zerbait eman zizun hartzeko?

— Prozaca.

— Eta on egin zizun?

— Nondik begiratzen duzun...

— Zer esan nahi duzu?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Medizinarekin errazagoa zitzaidan ohetik jaikitzea eta semeei gosaria prestatzea, bazkaria egitea eta hori dena, lanera joatea, adibidez.

— Eta alde txarra?

— Ezin nuen orgasmorik izan.

— Hori ona da.

— Nola?

— Galdetegiari buruz ari naiz, barkatu. Horregatik utzi zenuen Prozaca?

— Bai.

— Talde-terapiarik?

— Ez.

— Erlijioa?

— Ez naiz sinestuna.

— Bizilagun elkarteko partaidea al zara?

— Ez.

— Politika?

— Anaia kartzelan daukat 2003tik, 2003ko abenduaren 24tik. Ez zen afaltzera ailegatu.

— Politikan sinesten duzu beraz.

— Sinetsi? Bederatzi urte daramatza espetxean, sinetsi ez da hitz egokia.

— Galdetegian sinetsi jartzen du.

— Orduan baietz jarri.

— Politikagintzan sinesten duzula?

— Hori da.

— Non dago anaia?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Cadizen. Horregatik bizi da gure ama Malagan.

— Ikustera joaten zara?

— Geroz eta gutxiago.

— Jarraitu, interesgarria izan daiteke dosierrerako.

— Zenbat eta gutxiago joan orduan eta gutxiago sentitzen dut bere falta.

— Horrek balio dezake, balio dezake. Zenbat eta motibo gehiago izan orduan eta hobeto... Eta eskulanak, aerobika, soinketa, altzari berriztaketa...

— Ez.

— Ibiltzea, zaldiak, bizikleta, kirola, mendia...

— Ez.

— Afiziorik?

— Irakurketa.

— Hori ez dago galdetegian.

— Orduan bat ere ez.

****

— «Bizimolde alternatiboak» deitzen diren horietakoren bat jarraitzen duzu? Naturismoa, nudismoa, makrobiotika...?

— Elikadura asko zaintzen dut eta senarra eta biok nudismoa praktikatzen hasi ginen bigarren umea jaio bitartean. Baina bigarrena jaio zenean ez nintzen gauza jendaurrean gustura biluzik ibiltzeko, edertasuna galduta nuen. Eta orduan ohartu nintzen ez nintzela benetako nudista, exhibizio parte bat zuela nire biluzketak.

— Oso ederra zara oraindik.

— Utzi alde batera konplimenduak.

— Ekialdeko diziplinak ezagutzen dituzu?

— Yoga, tai chi edo antzekorik?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Hori da.

— Garai batean, Prozaca hartzen hasi aurretik, yoga egiten hasi nintzen, lankide batek arrastaka eramanda. Ez nuen ikastaroa amaitu, loak hartzen ninduen klasean.

— Klaseetara joaten zinela dioen ziurtagiriren bat beharko genuke, edo yoga egiten zenuen tokiko helbidea gutxienez.

— Izango dut telefonoa nonbait. Ez zait jende hori gustatzen.

— Zergatik?

— Beti energiak gora eta behera, beste planeta batean biziko balira bezala, beti zilborra garbia edo zikina duten begira eta hurkoaren kakari jaramonik egin gabe.

— Eta hori txarra al da?

— Ez zait gustatzen.

— Yoga irakasle bat izan nuen bezero duela ez asko, emaztea jipoitzen hasia zela aitortu zidan, horregatik jo zuen gugana.

— Inoiz ez dira haserretzen, dena uler dezakete, ez naiz jende horretaz fio.

— Harreman ona duzu senarrarekin?

— Bai.

— Biolentzia fisiko edo psikologikorik?

— Ez.

— Fideltasuna?

— Nik dakidala bai.

— Zu fidela zara?

— Bai.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Maite duzu?

— Estimua diot.

— Maite zaituela uste duzu?

— Galdera hori galdetegian al dator?

— Ez, barka, jakinmina nuen. Semeekin zer harreman mota du?

— Ondo konpontzen da biekin, aita normal bat da, ahalik eta gutxien egoten da haiekin, ez aspertzeko, baina maite ditu.

— Inoiz jo ditu?

— Ipurdikoak soilik.

— Arazo psikologikorik?

— Ez, gizon orekatua da, gehiegi.

— Gehiegi? Oreka ezin da gehiegizkoa izan.

— Bere kasuan bai.

— Alkohola?

— Gustatzen zaio edatea eta aitzakiak bilatzen ditu horretarako.

— Baina ez da arazoa, ezta?

— Nola begiratzen duzun. Gaur egun ez, baina gure harremanean eragina izan du.

— Axola ez bazaizu politikagintzan sinesten ez duzula jarriko dugu. Ados?

— Nahiago nuke gezurrik ez esan.

— Seguruaren afera erraztearren diot, semeen etorkizuna hobea izan dadin. Ekonomikoki behintzat.

— Ez dut nahi, egia esan nahi dut.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Batzuetan egia ez da biderik egokiena. Nik badakit nola neurtzen dituzten Madrilen erantzun hauek, egidazu kasu, esazu ez duzula politikagintzan sinesten.

— Ez, egingo dudan azken gauza da, zintzoa izan nahi dut.

— Nahi duzuna. Zenbat eta bizimolde edo bizi alternatiba gehiagok huts egin dizutela jarri orduan eta hobeto zure sendiarentzat, ekonomikoki behintzat.

— Ez aldatu ezer.

— Orain irakurri hau eta ados baldin bazaude sinadura ipini.

****

— Ez nago ados.

— Zergatik?

— Hala ere aurrera egin nahi dut.

— Zergatik ez zaude ados?

— Ez dut nire burua gai ikusten «seme-alabei kalteak sortzeko edo beraien zaintza deskuidatzeko», eta senarrarekin berdin.

— Orduan zergatik jo duzu gugana?

— Erantzuna ez zaio zure galdetegiari egokitzen.

— Ez duzu uste gaur hona etortzeko ausardiarik bildu izan ez bazenu, egun batean semeen gaineko ardura ez zenukeela jasango?

— Ez.

— Baina aurrera jarraitu nahi baduzu ados zaudela jarri beharko duzu.

— Ez zaizkit esaldi horiek gustatu.

— Utz ezazu koherentzia egun handirako. Esan dizut lehenago legearen zirrikituak baliatu behar ditugula, abortuetan bezala.

****

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Noiz egingo dugu?

— Egutegia aztertu behar da.

— Umeen oporrak profitatu nahi nituzke, eskolara hasten direnean konplikatuago izango da. Txikiena solfeora doa eta bestea eskubaloira, eta irailerako bi aste baino ez dira gelditzen.

— Lasai, horretaz ere gu arduratuko gara. Badakizu txosten honen oniritzia jaso behar dugula lehenik, Madrilgo Osasun Ministerioaren zigilurik gabe ezin dugu aurrera egin. Lasai egon zaitez semeengatik, behar den egunean Izaskun joango zaie bila, haur psikologian lizentziaduna da. Baina zehaztasun horiei buruz hitz egingo dugu gero.

— Zein egun da egokiena?

— Ostiral arratsalde bat. Gero erakutsiko dizkizut estatistikak.

— Eta nola egingo dugu?

— Zure profilari ongien egokitzen zaizkion metodoak hauexek dira: 80 bat kodeina pilula edo 100 bat valium. Pilulok goragalea sortzen dutenez, bidaiatzeko-eta erabiltzen diren zorabioaren aurkako pastillak ere emango genizkizuke, gaindosia izan baino ordu laurden lehenago hartu beharko zenituzke. Kodeinarekin 10-15 minututan konortea galtzen da eta hiru ordu laurdenetan heriotza heldu da. Oso eraginkorra da. Egokiena baraurik zaudela hartzea da, plastikozko poltsa bat buruan, eta oraindik hobeto, alkoholak lagunduta.

— Ez dut alkoholik edaten.

— Ba ondo legoke pastillok alkoholak lagunduta hartuko bazenitu. Aseguru etxearekin akordio hobeak lortze aldera diot.

— Ez nuke gai kimikorik hartu nahi.

— Tira, orduan zailagoa izango da zuretzat metodo egokia aurkitzea: estoldak eta ubideak garbitzeko likidoak, nitrogenoa, potasio kloruroa, adelfa, rotenonea eta zianuroa ezin dituzu erabili.

— Berdin zait ausartagoentzat den metodo bat topatzen badugu.

— Diskrezioa eta espektakuluaren artean dagoen metodoa jauziarena da. Seguruena ere bada. Maite psikologoa da eta berak eramango zintuzke zuk

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

aukeratutako parajeraino. Begira, hemen jauzi egiteko paisaje aukera polita daukazu, garabiak barne.

— %100eko eraginkortasuna duela egia da?

— Jauzi egin duten guztiak hil dira, eta metodoa aukeratu dutenen %... itxaron pixka bat, ordenagailuan begiratuko dut... Metodo hau aukeratu dutenen %72k egin du jauzi.

— Asko da.

— Bai, asko da.

— Ez dut bertigorik, baina apur bat biolentoa iruditzen zait... Demagun ez naizela hiltzen eta...

— Metodo honek bi aldiz jauzi egiteko aukera bermatzen du. Baina orain arte inork ez du bigarren aukera erabiltzeko betarik izan. Metodo fina da. Dotorea. Klasikoa. Duina. Zure heriotza izango den horri vis a vis begiratzeko modua, jauzi batez, esna, goragalerik gabe, mozkorrik gabe, beso zabalik...

— Bai.

— Zuk harrapatuko duzu heriotza eta ez heriotzak zu.

— Ados. Katalogoa ikusi nahiko nuke berriro.

— Beste aukera bat ere badago. Hori bai, beltzean ordaindu beharko zenuke, eta gainera garestiagoa da.

— Ez dut diru arazorik.

— Askoz garestiagoa da.

— Esan.

— Istripu baten antza eman diezaiokegu. Metodo hori, noski, ez dago katalogoan kontenplaturik. Madrilgo ikuskatzaileak etortzen zaizkigu sei hilabetetik behin eta badakizu...

— Ez.

— Ez?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Ez.

— Askoz garestiagoa da zuretzat, baina zure semeek askoz ere diru gehiago jasoko lukete aseguru etxetik.

— Ez.

— Ondo da.

— Argi geratzea nahi dut suizidioa izan dela.

— Ondo da.

— Bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko gai banaizela.

— Jauziarena metodo egokia iruditzen zait. Metodo onena aukeratu duzu, dudarik gabe.

— Zerbait gehiago?

— Aurrera egin baino lehen, galdera bat erantzun behar didazu. Damurako betarik utzi nahi duzu? Hori ere inportantea da, ez bakarrik prezioan baizik eta baita metodoaren eraginkortasunean ere.

— Ez, ez dut damurako betarik utzi nahi.

— Horrek garestitu egiten du zerbitzua, %20.

— Ez dago arazorik.

— Orduan ondokoa gomendatuko nizuke. Maite, psikologoa, AEBetan izan da coaching-a ikasten eta oso ona da, bikaina esango nuke. Damurako hauturik utzi ez dutenen... itxaron apur bat, ordenagailuan begiratuko dut... damurako hauturik utzi ez dutenen %98 hil egin da. Damurako hautua utzi dutenen %66 bakarrik hil da, ordea.

— %98 portzentaje ona da.

— Oso ona.

— Eta %2?

— Barkatu?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

— Damurako hauturik utzi ez zutenen %2k nola lortu zuen bizirik jarraitzea?

— Maiteren errua izan zen. Bezeroarekin maitemindu zen, eta ez zion jauzi egiten utzi.

— Beraz metodo hau ere ez da infaliblea.

— Ez, maiteminarena gerta liteke. Baina zure kasuan infaliblea izango da.

— Eskatu dizkizudan agiriak ekartzen dituzunean, Madrilera bidaliko dugu dena nik prestatutako txosten batekin batera. Aurrera egiteko baimena jaso arte ez dugu mugimendurik egingo.

— Zenbat denbora esan nahi du horrek?

— Kasuaren arabera izan ohi da. Zurean motibazio eskasa topa dezakete, eta kasu horretan atenuanteak bilatu beharko ditugu, ez diezu erraza jarri.

— Zenbat denbora.

— Hilabete inguru.

— Ez da asko.

— Ondo zaude?

— Oso ondo.

— Pozten naiz, Esther. Deituko dizut. Bitartean ondo profitatu denbora. Oraindik atzera egiteko garaiz zabiltza. Hurrengo zitan %100a ordaindu beharko didazu, eta atzera eginez gero gestoriak %85a itzuliko dizu.

— Ez dut atzera egingo, zaude lasai.

Aterkia hartu eta euripera irten da andrea. Gainean lehertzen zaizkion tantek markatzen diote ibilera.

Gizonak kalera begiratu du leihotik, «ipurdi ona dauka gero», esan du bere kabutan, purutxoa piztuta.

© Eider Rodriguez www.susa-literatura.com

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Zertaz jabetu gara ipuin hau zatika irakurri ondoren? Nahiko da hitzekin beste batzuen elkarrizketa bat ulertzeko? Zein informazio eman digu zati bakoitzak eta zein hipotesi osatu ditugu informazio guztia izan aurretik? Zeri erreparatu diogu genuen informazio osatugabea osatzeko eta interpretatzeko, zentzua emateko? Galduta sentitu zara? Bizitzan horrelakorik gertatu zaizu inoiz? Zergatik, zure ustez?

20. jarduera

Testua eta partaideak aztertu ondoren, testuinguruaren analisia egingo dugu. Hurrengo jardueran, binaka antzeztuko ditugu proposatzen diren egoerak. Adi egon; gauza bera gertatuko da, baina testuingurua aldatuko da. Elkarrizketak egin eta gero, hitz egin egon diren desberdintasunei buruz. Ezkerreko zutabean dituzue elkarrizketarako gaiak, eta hurrengo hiru zutabeetan dituzue hori jokatzeko egoera desberdinak.

Eztarriko mina duzu eta ez zara ondo sentitzen.	Etxera heltzean gurasoei kontatu.	Larrialdietako medikuari kontatu.	Bikoteari/lagun min bati telefonoz kontatu.
Zerbait edateko gogoa duzu.	Basamortuan egarri handiz esan.	Gauez tabernan trago batzuk edan eta gero, zerbitzari lanpetuari.	Lagun baten etxean, bere egongelan adierazi.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Irakasle batek azterketa ipini dizue beste bi azterketa dituzuen egun berean.	Email baten bidez jakin duzunean, zure buruarekin hitz egin.	Ikaskide batekin WhatsAppean hitz egin.	Irakasle horrekin aurrez aurre hitz egin.

21. jarduera

Azkenik, helburuaren analisia izango dugu langai. Binaka jarriko gara, eta beheko zerrendatik xede bat aukeratuko dugu. Hori izango da zure kidearekin izango duzun elkarrizketan lortu beharko duzun informazioa, bera ezertaz konturatu gabe. Berak ere, bere helburua izango du, jakina. Amaieran, elkarri aitortuko diozue zein izan den aukeratutako xedea; ikusiko duzue lortu duzuen, eta lortu baduzue nola egin duzuen, eta bestea prozesuan konturatu den ala ez.

Satorra

1. Taldean zenbatek erretzen duten jakin nahi duzu.

2. Moduluko lanean taldekideen artean lan-banaketa egin duten jakin nahi duzu.

3. Solaskidea praktiketako lehen egunean nola sentitu zen jakin nahi duzu.

4. Solaskideak sare sozialetan parte hartzen duen jakin nahi duzu.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

5. Solaskideak zer gosaltzen duen jakin nahi duzu.

6. Solaskideak lehen lan ebaluagarriari buruz dituen zalantzak ezagutu nahi dituzu.

7. Solaskideak ikasle-pisu batean bizi den (edo bizi nahi duen) jakin nahi duzu.

8. Solaskideak inoiz sator bat ikusi duten jakin nahi duzu

9. Solaskideak garagardoa ala kalimotxoa duen nahiago jakin nahi duzu.

10. Solaskideak ERASMUSean joan nahi duen jakin nahi duzu.

11. Solaskideak zenbat hizkuntzatan dakien agurtzen jakin nahi duzu ("Kaixo!" esaten).

12. Solaskideak aisialdian zer egitea duen gustuko jakin nahi duzu.

13. Solaskidearen musika-talde gogokoena (edo kanturik gustukoena) zein den jakin nahi duzu.

14. Solaskideak bere bizitzan egin duen bidaiarik luzeena zein den jakin nahi duzu.

15. Solaskideak probatu duen janaririk arraroena zein den jakin nahi duzu.

16. Solaskideak gida-baimena duen jakin nahi duzu. Ezetz badio, arrazoia ezagutu; baietz badio, azterketa praktikoan izandako esperientzia jakin.

17. Solaskideak komikiak irakurtzen dituen jakin nahi duzu, eta, hala bada, zein izan den irakurri duen eta gustatu zaion azkena.

18. Solaskideak Halloween ospatzeari buruz duen iritzia jakin nahi duzu.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

22. jarduera

Testua, solaskideak, testuingurua eta helburua aztertu ditugu aurreko jardueretan, eta, orain, bideo bat ikusiko dugu diskurtsoaren osagai horiek aztertzeko egunero izaten ditugun bat-bateko elkarrizketa horietako batean. Ama eta semea daude sukaldean afaltzen, eta semeak amari galdera batzuk egingo dizkio bere afariari buruz. Brasildarrez egingo dute berba, eta gaztelaniaz azpitituluak daude bideoan, baina behean euskaraz itzulita duzue. Lehenik ikusi eta entzun egingo dugu, eta gero irakurri eta aztertu.

Hasteko, aztertuko dugun lehen elkarrizketa honetan, txandei begiratuko diegu; izan ere, elkarrizketa guztietan ditugu hitz egiteko txanda-banaketak. Nolakoa da hurrengoa? Galdera-erantzun moduko elkarreragina dagoenean, “ondoko pareak” daudela esango dugu. Hau da, binaka multzokatu daitezkeen elkarreraginak daudenean, batak zerbait esan eta besteak zerbait horri zuzenean erantzuten dionean. Horrekin batera begiratuko dugu trantsiziogune egokiak non dauden; hots, entzulea hizlari bihurtzeko abagunea non topatzen duen elkarrizketan (isilunea egiten duenean lehen hizlariak, galdera bat egiten duenean, begirada edo eskuarekin hitza ematen dionean, …). Azkenik, txanda-zapalketarik dagoen begiratuko dugu. Konfiantza dagoenean, maiz gertatzen da hori, baina, elkarrizketa formaletan, errespetu falta izan daiteke.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ama (A) eta umea (U) afaltzen.

A: Orain jan zure olagarroa.

U: Bai ama. Ondo da. Olagarro hau ez da benetakoa, ezta?

A: Ez.

U: Ados. Beraz.... ez du hitz egiten eta ez dauka bururik, ezta?

A: Ez dauka bururik; hauek dira olagarroaren garroak zatituta, besterik ez.

U: A! Baina... orduan, bere burua itsasoan dago?

A: Arrandegian. Arrainen dendan.

U: Dendariak moztu zuen... horrela?

A: Hala da.

Zergatik?

A: Guk jan ahal izateko. Bestela, osorik jan beharko genuke.

U: Ama, baina, zergatik?

A: Guk jan ahal izateko, laztana. Behi bat edo oilasko bat zatitzen den bezala.

U: A. Oilaskoa ez, inork ez du oilaskorik jaten.

A: Inork ez du oilaskorik jaten?

U: Ez. Haiek animaliak dira.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

A: Bai?

U: Bai.

A: Beno, jan itzazu patatak orduan.

U: A. Patatak eta arroza bakarrik?

A: Ados.

U: Olagarroak animaliak dira.

A: Hala da.

U: Denak dira animaliak. Arrainak animaliak dira, olagarroak animaliak dira, oilaskoak animaliak dira, behiak animaliak dira, txerriak animaliak dira... Orduan, animaliak jaten ditugunean hiltzen dira?

A: Ba bai.

U: Zergatik?

A: Jan ahal izateko, laztana.

U: Zergatik hil behar dira? Ez zait gustatzen hauek hiltzea. Gustatzen zait haiek zutik jarraitzea.

A: Ados. Orduan ez ditugu berriro jango, bai?

U: Ados. Animaliak dira. Zuk zaindu behar dituzu, ez jan.

A: Kar, kar, kar! Arrazoi duzu seme. Jan patatak eta arroza, tira.

U: Ados. Zergatik ari zara negarrez?

A: Ez nago negarrez. Zugandik zerbait ikasi dut, besterik ez.

U: Gauza politen bat egin dut, ala?

A: Jan ezazu. Ez duzu olagarroa jan behar, ados?

U: Ados.

http://www.youtube.com/watch?v=iOXrQA7pC2A

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

23. jarduera

Elkarrizketa bat osatuko duzue, binaka, behean dituzuen irudien artean aukeratzen duzuen batekin. Helburua izango da besteek asmatzea elkarrizketa entzutean zein den aukeratu duzuen irudia. Ez ezazue errazegi (ezta zailegi ere) ipini!

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

DISKURTSOAREN ANALISI MULTIMODALA

Diskurtsoaren analisia egitean ez diogu bakarrik erreparatuko trukatzen diren hitzei; badakigu denak komunikatzen duela, hortaz, elementu bakoitzak komunikatiboki zer adierazten duen aztertuko dugu: ikus-entzunezko analisia ere egingo dugu.

> *Esanahia "komunikazio modu" askok osatzen dute*, hala nola, hizkuntza idatziak, ahozko hizkuntzak, irudi bisualek, soinuek eta musikak, keinuek eta jarrerek,… (Kress)

24. jarduera

Adibidez, honako argazki hauetan ikus dezakegu atari askotan topatzen dugun kartela. Baina, ez dira berdinak, badira ñabardurak. Zein alde dago haien artean?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Kalean topa ditzakegun kartelekin jarraituz, zer gertatzen da hurrengo bietan?

Argazkien analisiarekin amaitzeko, ikuspegi multimodaletik, egokia da kafea banatzen duen furgoneta honetako iragarkia?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

DISKURTSOAREN ANALISI KRITIKOA

Hitzei ere begiratuko diegu arreta handiz; izan ere, zer dago esaten denaren atzean? (solaskideen boterearen eta ideologiaren bila ere abiatuko gara gure analisietan).

Diskurtsoaren analisia ikuspegi kritikotik begiratzeko beharra hasi ziren aldarrikatzen XX. mendearen amaieran; zehazki, liburu baten argitalpenak eta kongresu batek eman zioten hasiera bide aberasgarri honi:

- Fairclough, N. (1989). *Language and Power*.
- Amsterdameko sinposioa (1991/1): Teun van Dijk, Norman Fairclough, Gunther Kress, Theo van Leeuwen eta Ruth Wodak.

25. jarduera

Jarraian, munduko lider politiko eskuindar batzuen esanak dituzue. Twitterretik jaso ditugu. Haiek esandakoei begiratuko diegu diskurtsoaren analisi kritikoaren ikuspegitik. Zein ideologia sostengatzen dute? Zein botere-harreman ikus daiteke? Nor diskriminatzen edo zapaltzen dute?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

Donald J. Trump @realDonaldTrump Follow

North Korean Leader Kim Jong Un just stated that the "Nuclear Button is on his desk at all times." Will someone from his depleted and food starved regime please inform him that I too have a Nuclear Button, but it is a much bigger & more powerful one than his, and my Button works!

6:49 PM - 2 Jan 2018

Matteo Salvini
Pubblicato da Matteo Salvini
4 min. ·

Prima gli italiani, il loro diritto al lavoro, alla sicurezza e alla felicità.
Abbiamo lavorato per settimane, giorno e notte, per far nascere un governo che difendesse gli interessi dei cittadini italiani.
Ma qualcuno (su pressione di chi?) ci ha detto NO.
Mai più servi di nessuno, l'Italia non è una colonia, non siamo schiavi di tedeschi o francesi, dello spread o della finanza.
A questo punto, con l'onestà, la coerenza e il coraggio di sempre, la parola deve tornare a voi!
#Primagliitaliani! Io non mollo.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

26. jarduera

Nola izendatzen dugu jendea? Nola kokatzen ditugu pertsonak gure diskurtsoan? Titulua erabili dezakegu, abizena, izena, ezizena, konbinazioren bat, edo ezer ere ez (Wardhaugh, 1986). Hiru ezaugarriren arabera kokatuko ditugu pertsonak diskurtsoan: intimitatea, estatusa eta generoa (Kramer,1995). Azter itzazu honako pankarta hauek esandakoaren argitan.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Diskurtsoaren analisi kritikoaren berri izan dugu orain. Konturatu gara diskurtsoaren analisia egitean oso garrantzitsua dela gure kokapenaz ohartzea, hau da, nondik begiratzen dugun jakitea: zein lekutatik bizi ditugu egoerak, elkarrizketak, diskurtsoak? Botere-harremanak eta horiek ekartzen dituzten diskriminazio eta pribilegioak ikusgarri egiten saiatu behar gara egoerari, harreman bakoitzari zentzua emateko eta benetan osoki ulertzeko. Zer iruditu zaizu kontu hori?

DISKURTSOAREN ANALISI FEMINISTA

Ikuspegi kritikoa aplikatuko diogu diskurtsoaren analisiari, botere-harremanak, diskriminazioa, zapalkuntza edo ideologiak azaleratzeko helburuarekin. Baina hori modu desberdinetan egin daiteke:

> Jendeak diskurtsoarekiko **kokapen desberdinak** ditu harreman sozialetan duen kokapenaren arabera (lan-merkatuan duen kokapena (Gee, etab.), generoa (Haraway), arraza (Bhabha) eta belaunaldia (Lury) (Chouliaraki eta Fairclough, 2002).

Hona hemen hurbilpen horietako bat: feminista. Diskurtsoaren analisi feminista egiteko, proposamena bereziki bi adituk egin zuten: Baxter-ek eta Lazar-ek.

> Feminismoaren eta Diskurtsoaren Analisi Kritikoaren arteko loturak ekintzarako kritika politiko aberats eta indartsua sor dezake (Lazar, 1999).

> Diskurtso partekatuetan solaskideek negoziatzen dituzten identitate, harreman eta kokapenak aztertzeko, ikuspegi feminista da Diskurtsoaren Analisi Postestrukturalista Feminista (Baxter 2003).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

27. jarduera

Zer dago honako komiki-tira honetan senarrak emazteari esaten dionaren atzean?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

28. jarduera

Hala ere, azken aldiko feminismoak erakutsi digun moduan, zapalkuntzak elkarrekin gurutzatzen dira eta elkarguneak gertatzen dira haien artean pertsona bakoitzarengan. Horregatik, intersekzionalitateaz hitz egingo dugu. Zer gertatzen ari da bi emakume horien artean? Kafea hartzen ari diren bi lagun dira, baina…

TRANSKRIBAPENERAKO IKURRAK

Elkarrizketaren analisiari buruzko lan ebaluagarria egiteko aukeratzen duzuen pasartearen transkribapena egin beharko duzue; hots, ahozko hizketa idatziz jaso beharko duzue ahoz egiten den moduan. Horretarako, zeinu edo ikur batzuk erabiliko ditugu, segidan dituzuenak, hain zuzen. Saiatu zaitezte ikur bakoitza erabiltzen eguneroko hizketetatik ateratako adibideekin.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Transkribapenerako ikurrak

-Grafia normala erabili analisirako, ezaugarri fonetikoki interesgarriak salbu (s/z/x, ñ-ll- tt eta h).

-Hitz makuluak

A: mmmmmmmmmm B: eeeeeeeeee C: Baaaaaaaaaa

-Geldiuneak: koma, puntu eta etenpuntuak.

A: Zer esan duzu? Ez dizut entzun.

B: Baaa, ez dakit... Bale, ni ere joango naiz!

-Barreak, zaratak, iruzkinak: [ ] Barre egitean: jajajaja edo [barre egin du / barreak] Arnasa hartzean: hhh edo [arnasa hartu du]

-Ulertzen ez diren zatiak: (???)

-Txandak: gidoiarekin paragrafoa aldatu, eta zenbakitu txanda bakoitza.

Txanda-zapalketak eta teilakatzeak.

A: Arratsaldean, graduazio-ekitaldira joango(-)

B: (teilakatzea) Gaur da? Ahaztuta neuan…

A: (-)naiz.

-Aldaketa prosodikoak: tonu-igoera TT, tonu-jaitsiera tt, erritmoa azkartu RR, erritmoa moteldu rr, bolumena igo BB, bolumena jaitsi bb.

-Ezaugarri kinesiko eta proxemikoak parentesi artean deskribatuko ditugu.

bbEzagutzen duzu eldu berri dena?bb [irribarre eginez] Ba, atzo gauean ezagutu genuen eta [eskuarekin besoa heltzen dio]… BBTTsuper jatorra da! BBTT [gora begiratzen du].

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

29. jarduera

Atal honekin amaitzeko, pelikula batetik hartu dugun pasarte bat duzue jarraian, zuek egin beharko duzuenetik hurbil dagoena. Bertan, bi lankide dituzue elkarrekin solasean: A nagusia da eta B berarentzat lan egiten duen langilea, horrez gain, bere alabaren senargaia dena. Ikus ezazue bideoa, eta egin ezazue analisia osorik jarraian.

Casual Day (15,35-18,32)



http://www.eitb.tv/eu/bideoa/film-luzeak-zinema-euskaraz/4105085738001/4104552107001/casual-day/

A: BB Rodrigo! (eskuarekin hurbiltzeko esan dio) Ze? (autoa seinalatuz)

B: E?

A: Autoa, zer deritzozu?

B: A! Zalantzarik gabe, autoritatea du.

A: Au ez da Moralesek erosi duen portxea bezalakoa, e? Au. Audikoak ez dabiltza ostiakin, ez sensaison ezta bere ama puta ere, au, audi zortzia da. Sosik baduzu erosten duzu, bestela… eta onetaz ulertzen baduzu, a iru bat erosten duzu eta gero a lau bat. eta a zortzira iristen zarenean au pozbidea au! Sartu! Sartu! (autoaren alde batean tente).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

B: Pentsatzen dut (auto barrura begiratuz).

A: BB Sartzeko motel! (atea irekiz eta autoan sartuz; gero, Rodrigo ere sartu da).

(auto barruan daude biak).

A: Begira! Begira oni (giltza sartu eta koadrora begira) ade ese eme eme i auditronik klimatronik, ez dakit ze arraio den au (eskuarekin koadroa erakutsiz) baña nire familia babesteko baldin bada, (Rodrigori zuzen begiratzen dio)bb nai dut.

B: Bai bai yakiña.

A: Zure andrearen ipurdia ogeitazazpi gradutan egotea nai baduzu yar dezakezu… baihhh ogeitamasei urtez lan egin ondoren, (alkandorako lepoa pixka bat zabalduz) nire andrearen ipurdia ogeitazazpi gradutan egotea nai dut ez ogeitasei ez ogeitazortzi ogeitazazpi (zuzen begiratuz)… koño Rodrigo! Denok nai dugu autorik onena e? Ez da ala? Eta ori txarra al da?

B: Ez ez

A: Txarra dela esango zenuke?

B: Nire ustez (begiak zabalik eta bekainak gora)(-)

A: (teilakatzea) Nola ostia izango da ori txarra! Nola izango da ori txarra! Ta zuk lor dezakezu Rodrigo (Rodrigok txistua irentsi du), nai baduzu lor dezakezu (baietz diote biek buruarekin)… TT Ikusi duzu nire bulegoko besaulkia?

B: E?

A: Besaulkia

B: Bai, larruzkoa, ezta?

A: Bertan esertzeagatik urteetan e? (eskuekin marrazki zirkularra egiten du), marrazkia ikusten da, ipurdiaren marrazkia! (Rodrigok barre egiten du, eta gero nagusiak ere bai) Nirea dago primeran ikusten da e, eta badakizu nola lortzen den orduak eta orduak ematen or neguan eta udan eta ordu geyago enpresa egiten, bestela ez da marrazkia egiten eta ez badago zure ipurdiaren marrazkia edozein ipurdirentzat balio du.

B: Bai.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

A: Ulertzen?

B: Bai bai (begirada koadrotik nagusiarengana tartekatuz).

A: Bai?

B: Bai. konprometitu bearra dagoela.

A: Ori da! Ori da! (Rodrigok arnasa hartzen du).

B: Gañera Jose Antonio, nik ematen didazun aukera eder au (irribarrez) (-)

A: Ez ez ez utzi.

B: (teilakatzea)Irugarrenean sartzeko aukera ikaragarria da (-)

A: Ez ez ez eskertu. Baña orain orain ezin da uts egin, e Rodrigo?

B: Bai bai, ni benetan indarrez nator (-)

A: Ikusten duzu au? (giltza erakutsiz) Au ez da nire autoaren giltza bakarrik au, nire andrearena ere bada eta Inesena. Ulertzen duzu?

B: Ulertzen dut (-)

A: Nire familiaren autoa da. Artu!

B: Ez ez ez! Mesedez! (buruarekin ezetz egin eta pixka bat atzera botaz)

A: Bai (giltzak indarrez eskuan ipintzen dizkio bere eskua itxiz eta zuzen begiratuz) rrZurea da, gaurkoz zurea da.

B: Eskerrik asko benetan Jose Antonio (irribarrez eta harriduraz esaten dio).

A: RR Tira tira! Emaidazu besarkada bat koño! (Rodrigok beldurrez begiratzen dio) Jejeje.

https://www.youtube.com/watch?v=4y45K9Co3xE

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

“Minutu bakarreko idazlana” (One minute paper, Cross & Angelo, 1988) izeneko azalpen idatzia egingo duzue orain. Saioa amaitzean, paper batean, anonimoki, honako galdera hauei erantzungo diezue minutu pare batean, eta amaitutakoan irakaslearen mahaian utzi:

1) Zer izan da gaur ikasi duzun gauzarik garrantzitsuena?
2) Zein izan da gaur geratu zaizun zalantza edo egingo zenukeen galdera?
3) Zer aldatuko zenuke gaurko saiotik?

30. jarduera (lan ebaluagarria)

AHOZKO BAT-BATEKO ELKARRIZKETA BATEN ANALISIA

Elkarrizketaren aukeraketa eta transkribapena

Hasteko, elkarrizketa bat aukeratuko dugu. Euskaraz izan behar da elkarrizketa, 2 minutu eta 5 minutu artean iraun behar ditu, gero orrialde beteko luzera izateko idatzira pasatzerakoan. ETB nahieran web-orriko saio batetik hartutakoa (“Gure kasa!”, “Herri txiki, infernu handi”, “Euskalonski”, “Ur handitan”, “Autentikoak”, …) http://www.eitb.tv/eu/ edo zuen senide edo lagun euskaldunei bideoan grabatutako elkarrizketatxoa izango da (“entrebista” modukorik edo gidoi batean oinarritutakorik ez, bat-batekoa izan behar da). Ahalik eta azkarren aukeratu, eta amaia.au@ehu.eus helbidera bidali oniritzia jasotzeko. Lau egun dituzue aukeratzeko, eta beste lau transkribatzeko (transkribatzeko ikurrak 22. jardueran dituzue).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Analisia

Elkarrizketa honetan egingo duzuen analisiak bi alderdi izango ditu, bata deskribatzailea eta bestea baloratzailea.

Aztergaiak honako hauek izango dira:

a) Elkarrizketaren antolaketa eta zentzuaren eraikuntza (hasiera/amaierak, txanda aldaketa/zapalketak, gai-aldaketa, pareak, trantsizio-guneak, ezagutza partekatua).

b) Diskurtsoari dagokionez, testuingurua edo egoera, partaideak (haien rolak eta haien arteko harremanak, gidaritza, modalizazioa, kortesia eta ezaugarri soziokulturalak) eta helburuak (soziala/pertsonala eta kooperazioa).

c) Komunikazioari dagokionez, aztertu komunikazio modu edo bide bakoitza nola interpretatzen duen hartzaileak/solaskideak, nola interpretatzen duzuen zuek, eta gaizki-ulerturik dagoen ala ez.

d) Solaskideek erabiltzen duten hizkuntzari buruz ere hitz egingo duzue (hizkuntzaren aldaerak, erabilitako lexikoa, eta hizketa-ekintzak).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Epea eta baldintzak

Binaka eta idatziz egingo duzue lan hau, baina lanaren idazketa bitan banatuko duzue, hau da, bakoitzak lanaren erdi bat idatziko du: batak sarrera, testua eta testuingurua, eta besteak partaideak, helburuak eta ondorioak (eta ordena horretan sinatuko duzue). Praktiketatik bueltatu eta hirugarren asteko osteguna izango da lana entregatzeko azken eguna. Eskura emango diozue irakasleari, klasea hasi aurretik.

LANAREN EGITURA

1)Aurkezpena

2)Transkribapena

(orrialde bat: 12 *Times New Roman*, espazio bakarra)

3)Analisia

(aztergaiak: testua, testuingurua, partaideak, helburuak)

4)Ondorioak

5)Bibliografia

(erabilitako dokumentazioa)

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Material osagarria

Austin, J. L. (1962). *Cómo hacer cosas con palabras*. Bartzelona: Paidós.

Blum-Kulka, S. (1999). «Pragmática del discurso». IN Van Dijk, T. A. *El discurso como interacción social*, 2. lib., Bartzelona: Gedisa, pp. 67-99.

Calsamiglia, Helena eta Tusón, Amparo. (2007). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

Escandell, M.ª V. (1996). *Introducción a la pragmática*. Anthropos: Madril.

Fairclough, N. (1995). *Critical Discourse Analysis*. Harlow: Pearson Education Limited.

Tusón, Amparo. (2006). *Análisis de la conversación*. Ariel.

Van Dijk, Teun. (2000). *El discurso como interacción social*. Bartzelona: Gedisa.

Verschueren, J. (1999). *Para entender la pragmática*. Madril: Gredos, 2002.

Yule, G. (1996). *Pragmatics*. Oxford: Oxford University Press.

DISKURTSOAREN ANALISIARI BURUZKO BIDEOAK

https://www.youtube.com/watch?v=YibbynRW_9g

https://www.youtube.com/watch?v=NpJhICZczUQ

https://multimodalityglossary.wordpress.com/conversation-analysis/

https://www.youtube.com/watch?v=YItCE8t4WLA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Diskurtsoaren analisi kritiko feminista ikusi ondoren, gogoetarako irudia:



Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

6. DISKURTSO PROFESIONALAK: GURASOEKIN BILERA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

31. jarduera

Atal berri honetan, Haur Hezkuntzako irakasle batek ondo kudeatzen jakin behar duen diskurtso profesional bat jorratuko dugu: gurasoekin bilera. Lehenik, telesail bateko pasarte bat ikusiko dugu eredu bat izateko, eta, bertan, irakaslearen jokaera komunikatiboki egokia den ala ez erabakitzeko.

Mad Men telesailaren pasartea. Irakaslea gurasoekin berbetan.

Irakaslea: Has anything changed at home recently?

Aita: (amari begiratu).

Ama: (begiak itxita) My father passed away… Last week.

Irakaslea: (ahoa estaltzen du).

Ama: (jaiki da) I'm sorry. I´ve just to leave this room again.

Irakaslea: (amari) We can talk about this another time.

Ama: No, I'm not as upset as I look like. I, I can't help this. (ikasgelatik irten da).

Irakaslea: Sally does need more attention. She is grieving. There is a very special pain, to losing someone at that age… tt I don't know if you can understand that.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Aita: (lasai) I can.

Irakaslea: Etxean aldaketaren bat egon da azken aldian?

Aita: (amari begiratu).

Ama: (begiak itxita) Nire aita hil da… Aurreko astean.

Irakaslea: (ahoa estaltzen du).

Ama: (jaiki da) Sentitzen dut. Hemendik irten behar naiz, berriz.

Irakaslea: (amari) Beste batean hitz egin dezakegu honetaz.

Ama: Ez, ez nago dirudien bezain triste. Nik, nik ezin dut ebitatu/ezin diot eutsi. (ikasgelatik irten da).

Irakaslea: Sallyk [alabak] arreta handiagoa behar du. Dolua egiten ari da. Adin horretan, norbait galtzean min berezi bat sentitzen da… tt ez dakit ulertzeko kapaza zaren.

Aita: (lasai) Bai, banaiz.

http://www.amc.com/shows/mad-men/video-extras/season-03/episode-05/highlights-episode-305-mad-men-the-fog

Haur Hezkuntzako maisu-maistrak gurasoekin elkarrizketak izaten dituzte haurren garapena eta ongizatea bermatzeko xedearekin, eta diskurtso mota hori ahalik eta egokiena izan dadin saiatu behar da irakaslea.



Mari Jose Intxaustik (2015) honako hau esaten digu bere liburuan:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Elkarrizketa motak:

Sarrerakoa, eskatutakoak, ebaluaziokoa

Hasierakoa, jarraipena egitekoa, azkena

A) Elkarrizketaren prestakuntza:

Edukia, elkarreragina, ulermena, parte-hartzea.

B) Elkarrizketa egitea:

Gai nagusiak: gorputza, sozializazioa,

segurtasuna, ikaskuntza-prozesua.

C) Egin ostean, datuen jasoketa eta kudeaketa:

Denboraz eta berehala egin beharrekoa.

Marta Albaladejok (2010), ordea, elkarrizketa mota hau planeatua eta formala dela azpimarratzen du. Hezitzaile profesionala familiako pertsona batekin edo gehiagorekin biltzen da helburu hezitzaileak erdiesteko, informazioa lortuz eta sinergiak sortuz. Horren ondorioz, kanpo-komunikazioko elkarrizketa dela esan dezakegu (erakundearen eta bere ingurunearen arteko trukeak egoki egiteko, kalitatezko irudia igortzeko).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Egoera asimetrikoa eta instituzionala dela dio, kortesia erabiltzea gomendatzen du horregatik. Genero diskurtsibo horren barruan, honako elkarrizketa mota hauek bereizten ditu:

1) Hasierakoa.

   Garrantzitsuagoa da jasotzen dugun informazioa ematen duguna baino.

   Semea/alaba ezagutzen dugula adierazi.

   Erakutsi alde positiboak, negatiboak berez agertuko dira.

   Giro lasaia sortu, pazientzia izan, eta eman hitz egiteko denbora; isiltasuna onartu.

2) Jarraipenekoa (behar denean egin, ez agendak dioenean).
3) Kexatzekoa (%2 izaten da).

Gurasoei lasai entzuteko aholkatzen du, eta ez hartzeko esaten dutena maila pertsonalean: ez eztabaidatu gurasoekin, garrantzitsuena ikaslearen heziketa da. Oharrak hartzea gomendatzen du, eta egoera zehatz-objektiboari buruzko datuak eskatzea. Kexak birformulatu behar direla dio, hizkera iluna saihestuz eta arazoak konpontzeko hizkera erabiliz. Jarrera ikertzailea eta konponbiderako prestutasuna agertu. Pentsatu behar dugu hitz egin aurretik, eta alternatiba batzuk eskaini. Horrez gain, esaldi baikorrak esan, akatsak onartu eta barkamena eskatu. Finean, asertibotasuna erakutsi, eta ziurtatu elkarrizketaren amaieran gurasoek irtenbidea ulertu dutela

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

32. jarduera

Hymesen SPEAKING erabilita deskribatzen du gurasoekin bilera, eta honako gomendio hauek ematen dizkigu. Sei taldetan elkartuko zarete, eta beheko informazio-taulak banatuko (talde bakoitzak taula bat hartuko du). Irakurriko ditugu egokitu zaizkigun datuak, ondo ulertuko dugu denon artean zer den esan nahi duena puntu bakoitzak, eta talde osoari azalduko diogu:

DENBORA ETA ESPAZIOA

- Aldez aurretik planifikatu.
- Ordu laurdenetik bi ordurakoa (30-1,30).
- Hasieran esan zein iraupen izango duen.
- Etenik ezin da egon (itzali sakelekoa bertan).
- Harrera egin eta gelara lagundu (haien bila joan sarrerara).
- Gela eroso, intimo, garbi, txukuna. Argi eta tenperatura atseginak, eta estetika zaindua.
- Kokapenak, elkarren arteko harremana adierazi: mahai batean elkarren ondoan edo angulu beraren alde bakoitzean (lankidetza).
- Irakaslearen atzean horma, eta gurasoak ezin dira atera begira eseri.

PARTAIDEAK ETA HARREMANA

- Eskolako ordezkaria
  - Tutorea, espezialistak, zuzendaritza, laguntzaile-aholkulariak, itzultzaileak.
  - Elkarrizketaren gidaritza eraman behar du.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

  - Helburua argi izan behar du hiztunak.
  - Elkarrizketa hasi, garatu eta itxi behar du.
- Familiaren ordezkaria
  - Ama eta aita biologikoak (genetika, identitatea, balioak).
  - Familia-tipologia ugari. Oinarrizko lau egiturak: familia nuklearra, familia zabala, guraso bakarrekoa, berregindako familia.
  - Arduradun legalak (galdetu guraso biologikoei buruz), seme-alaben heziketan laguntzen dieten profesionalak.
- Bertan egon gabe partaide dira erakundea eta ikaslea.
- Irakaslearen eta familiaren arteko harremana ez da berdinen artekoa, ezta harreman pertsonala ere; profesionalak gurasoen zerbitzura daude.
- Ezin da iritzia eman, ezin zaio lagunari bezala hitz egin, ezin zaizkio aholkuak eman edo bere bizitza sentimentalean sartu (salaketa jaso dezakegu).
- Irakasleak eskolan eragin dezake, ikasleen ikaskuntzan, ez etxean edo familian (gurasoek haurren eskubideak eta legeak betetzen dituzten neurrian).
- Irakasleenganako errespetua eta konfiantza hauen integritatean eta gaitasun emozionalean datza, errespetu handiz jokatu behar dute.

HELBURUA ETA JARRERA BAIKORRA

- Seme-alaben/ikasleen heziketan lankidetza lortzea.
- Perspektiba desberdinak egoten dira.
- Ez saiatu haien ohiturak aldatzen edo aholkuak ematen.
- Kontuan hartu familia bakoitzaren izaera, eta akordio zehatz eta egingarriak adostu.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Gatazka ugari saihestu, eta harreman atseginak ahalbidetu.
- Lorpenak:
  - Sentimendu inplizituak ulertu (gurasoen beldurra, haserrea, errua, lotsa, enbidia).
  - Familia ez epaitu (balio, sinesmen eta normaltasun ugari daude; desberdin hezi gaituzte).
  - Hizkuntza ulergarria erabili.
  - Harreman ona eraiki.
  - Mezu ilun eta ulergaitzak ekidin.
  - Gurasoek ulertu diezula sentitu behar dute.
  - Gurasoek ondorio argiarekin amai dezatela lortu.
  - Arazoak konpontzeko hizkera erabili.
- Aldeko sentimenduak izan eta “bai”ra bideratu elkarrizketa; familia bakoitza da bere bizitza pribatuaren jabe; ez erabili terminologiarik; edukiaz gain, harremana zaindu; ikasleak zuretzat garrantzitsuak direla erakutsi; gatazkak konpontzeko orain eta hemen hitz egin, gardentasuna eta informazioa eman.

EKINTZA-SEKUENTZIA

1. Harrera (agur formala eta ez-ahozko interes eta begirunea).
2. Entzuketa aktiboa eta ikerketa (galdera sorta eta esandakoaren birformulazioa).
3. Jarraitu beharreko estrategiaren lanketa (helburuaren esplizitatzea; modu ulergarrian informazioa eman; irtenbide-bilaketa eta ekintzarako proposamenak).
4. Akordio eta konpromisoak (gurasoei galdetu zein konpromiso hartzeko prest dauden, eta irakasleak ere beste horrenbeste egin; azken sintesia,

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

konpromisoak eta ideia nagusiak errepikatu, hobeto gurasoek egiten badute).

5. Agurra (agurtu, eta atea zabalik utzi hurrengo baterako).

TONOA, TRESNAK ETA ARAU KULTURALAK

- Ofiziala eta formala.
- Hasieran, gaztelaniaz “usted” eta “señor/señora” erabili (euskaraz zuka eta jaun/andrea).
- Eskolaren eta hezkuntza-sistemaren izenean hitz egiten dugu; beraz, modu ofizialean egin.
- Adeitsuak eta hurbilak izateak ez du intimitatea suposatzen (irakaslearen intimitatea elkarrizketatik kanpo geratu behar da).
- Eroso sentitu behar dira, errespetua eta konfidentzialtasuna sentiarazi.
- Entonazio lagunkoia erabili, begiratu aurpegira zuzenean, eta irribarre egin.
- Keinu, gihar eta esku ireki eta lasaiak.
- Teorian, ikasketa-hizkuntza formal estandarra erabili, ez lagunarteko ez tekniko (hizkuntza biren kasuan, familiari galdetu zeinetan nahi duten).
- Praktikan, ahal dela, familiak ezagutzen duen hizkuntza erabili (itzultzailearekin bestela).
- Familiak erabiltzen dituen kontzeptuak gure egin ditzakegu, hurbiltasuna adierazteko.
- Hasierako agurra, irakasleak lehen txanda, hizkuntzaren aukeraketa, formaltasun egokia ezarri.
- Partaideen aurkezpena.
- Hasieran “usted” eta “señor/a” erabili (zuka eta jaun/andrea).

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Irakasleak bizitza pribatuari buruz galde diezaieke, gurasoei seme-alaben heziketarekin lotura zuzena badu; gurasoek inoiz ez.
- Irakasleak gidatu behar du elkarrizketa (gai-aldaketak eta faseak).
- Irakaslearen galderek erantzuna espero dute; bere proposamenak onartu ala baztertu daitezke.
- Irakasleak gurasoen konpromisoa eskatu behar du, eta berea hartu.
- Irakasleak elkarrizketa itxi behar du gurasoen onespenarekin.
- Irakasleak modu ofizialean hitz egiten du (erakundearen ordezkaria da; horren irudia, lankideena eta familiarena zaindu behar ditu); horretarako, behar den kortesia erabiliko du.

ENPATIA ETA ASERTIBITATEA

- Gurasoen emozio negatiboak kudeatzeko (perspektiba desberdinen aurrean).
  - Haien sumindura adierazten utzi, ez mindu ezta gure burua defendatu, sumintzeko eskubidea aitortu.
  - Emozioen adierazpenak intentsitatearen goia jo eta gero, jaisten hasten da; orduan erabili dezakegu arrazoia elkarrekin irteerak eta akordioak topatzeko.
- Enpatiarekin entzuteko:
  - Sentimendu negatiboen legitimitatea onartu.
  - Ez eman edo kendu arrazoirik.
  - Ez aholkurik eman.
  - Interesa agertu eta galderak egin.
  - Irakaslearen lekuan mantendu.
  - Ez justifikatu; hanka sartu badugu onartu eta barkamena eskatu.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

  - Laburpentxoak egin ulertu dugula frogatzeko eta adi gaudela adierazteko.
  - Ez-hitzeko komunikazioarekin: tono suabea, begirada zuzena eta begietarakoa, keinu irekiak eta aurpegiera abegikorra (baina ez faltsua).
- Baieztapenen bidezko komunikazioa; egiten, pentsatzen eta sentitzen duguna batzen dituen komunikazio-estiloa.
- Norberaren eta solaskidearen interesak eta beharrak kontuan hartu, sumisio eta autoritarismorik gabe.
- Ez da manipulazioa, ez besteen beharren onarpen sakrifikatua.
- Oinarriak:
  - Nork bere burua eta besteak errespetatu.
  - Zuzena eta zintzoa izan.
  - Bakoitzaren emozioak modulatzen jakin, eta besteenak ezagutzen eta errespetatzen.
  - Ezetz esaten jakin.
  - Entzuten jakin.

33. jarduera

Aurreko aurkezpenetan ikusi dugun moduan, oso garrantzitsua da enpatia, asertibitatea eta entzuketa aktiboa izatea horrelako elkarreragin komunikatibo batean. Has gaitezen hasieratik. Enpatia. Badakigu zer den? Ikus dezagun zein den enpatiaren eta sinpatiaren arteko desberdintasuna bideo baten bidez:

Enpatiaren eta sinpatiaren arteko desberdintasunak

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

https://www.youtube.com/watch?v=1Evwgu369Jw

ENPATIAREN DEFINIZIOA

Enpatia definitzean, burura datorkigun lehen ideia "bestearen lekuan jartzeko gaitasuna" da. Baina beste pertsonen sentimenduak eta kezkak ulertzeko eta haien emozioei ondo erantzuteko ahalmena da. Beraz, besteek sentitzen dutena hautemateko, partekatzeko eta ulertzeko kapaz izatea da, besteen esperientziekin kezkatzea, besteek modu desberdinetan pentsatu eta sentitu ahal dutela jakitea, eta afektiboki parte hartzea horretan. Enpatia kognitiboa, emotiboa eta somatikoa daude. Ulertzeko gaitasuna, emozioaz kutsatzea, eta erantzun fisikoa dira hiru mota horien ezaugarriak.

34. jarduera

Enpatia lantzen

Baloratu 1etik 4ra honako erantzun hauen enpatia-maila. Ezkerrean egoera duzu, eta eskuinean horren aurrean solaskideek izan ditzaketen erantzun desberdinak. Zein da enpatikoena? Zeinek du enpatia-gradu baxuena?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ordenatu a, b, c, eta d hizkiak erabilita (enpatia gutxien duenetik gehien duenera arte).

FAMILIAREN KEXA	PROFESIONALAREN ERANTZUNA
Zuzendariarekin hitz egin nahi dut nire alaba orain dela bi astetik egunero datorrelako etxera zauriekin	-Minduta egongo zarela imajinatzen dut, alaba arriskuan dagoela ikusteak sufrimendu handia eragiten du. Etxebarria andreak ezin zaitu orain hartu, baina nahi baduzu galdetuko dut ea noiz har zaitzakeen. -Sentitzen dut, baina ezin dut Etxebarria andrea molestatu, une honetan oso lanpetuta dago eta. -Etxebarria andreak ezin zaitu orain hartu, baina utzidazu zure telefonoa, eta ahal duenean deituko dizu. -Etxebarria andreak ezin zaitu hartu, baina tutorearekin hitz egin baduzu ez da beharrezkoa berarekin hitz egitea. Tutorea da zuri informazioa eman behar dizuna.
Ez dugu nahi gure semeak etxeko lan gehiago ekartzea; nahiko lan badaukagu bestela ere.	-Ba ez baduzue etxeko lanak egitea nahi, zuek ikusi. Zuen alaba da. Nik urtebete izango dut, eta zuek bizitza osoa. -Ikasturte bakoitzak irakasleok adostutako etxeko lan kopuru jakin bat du. Ezin dugu eskatzen duen familia bakoitzarentzat salbuespenik egin. -Ulertzen dut zuek oso lanpetuta egotea. Zuen alabari etxeko lanak egiten laguntza ematea astuna izatea normala da. Nahi baduzue, pentsatu dezakegu bera bakarrik moldatzen joateko modua.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

	-Ulertzen dut zuen alabari laguntza eman nahi ez izatea. Ez lagundu, beraz.
Hirugarren aldia da nire semea puntual irteteko eskatzen dizudana, irakasle. Oraindik ez duzu ulertu presaka nabilela?	–Ba, nahi baduzu zure kexa apuntatuko dut, eta hurrengo koordinazio-bileran komentatuko dugu. -Berandu heldu da? Harritzen naiz. Nik puntual amaitu dut; agian lagunekin jolasean ibili da, eta berandutu egin zaio. -Ulertzen dut zure haserrea, gainera presaka bazabiltza… Egia esan, jarduera bat egiten ari ginen, eta ez dut denbora ondo kalkulatu. Izugarri sentitzen dut. Berriro gertatuko balitz, nahiko zenuke zure semeari amaitu aurretik prestatzen joateko esatea? -Sentitzen dut, baina nik nire lana egiten dut. Eskerrak eman beharko zenizkidake! Ez duzu ulertzen, beranduago amaitzen badugu, zuen seme-alaben hobe beharrez dela?

35. jarduera

Oraingoan, egoera baten rol-playinga egingo dugu “bestearekin” enpatia lantzeko:

Alaba nerabea etxera heldu da goizaldean, parrandatik behar baino beranduago, eta ama du zain eta haserre egongelan. Antzeztu ezazue binaka egoera hau, eta probatu bi rolak: lehenengo ama eta gero alaba, edo alderantziz.

ASERTIBITATEAREN DEFINIZIOA

Pertsonen arteko harremanetan, elkarri eraso egin gabe edo elkarri menpekotasuna erakutsi gabe jokatzea da. Hau da, bakoitzak bere eskubideak ezagutu eta defendatu ahal ditu, baina besteak errespetatuz, ez oldarkor ez otzan

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

jokatuz. Asertibotasuna trebetasun sozial eta estilo komunikatibo bat da, eta hezkuntzan landu beharrekoa. Graduak daude, eta pasibitatearen eta agresibitatearen artean kokatzen da: agresiboa izan gabe, norberak bere buruarenganako konfiantzaz eta auto-estimuz jokatzeko gaitasuna da. Trebetasun hori ikas daiteke, eta aske eta justifikazio-beharrik gabeko iritzi eta baieztapenetan agertzen da. Gakoa norberaren eta besteen mugak presente izatea da, horiek gainditu gabe. Bestela esanda, kide guztien beharrak eta nahiak kooperazioaren bidez betetzeko interesa da xedea. Sentimenduak adierazi daitezkeenean zuzenean, baina inor mindu gabe.

Jende asertiboak honako ezaugarri hauek izan ohi ditu:

a) Libre sentitzen dira euren sentimenduak, pentsamenduak eta desirak adierazteko.

b) Beste pertsonekin harreman erosoak hasteko eta mantentzeko gai dira.

c) Haien eskubideak ezagutzen dituzte.

d) Haien amorrua kontrolatzen dute (erreprimitu gabe, horri buruz era egokian berba egiteko gai dira).

e) Norberarena inposatu beharrean, besteekin adosteko prest daude, eta auto-estimu ona dute.

f) Adiskidetasunean kontuan izaten dituzte norberaren beharrak eta bestearenak.

36. jarduera

Definizioa eta ezaugarriak irakurri ostean, zer esango zenuke honako irudi hauei buruz? Zerekin identifikatuko zenuke haietako bakoitza? Non kokatuko zenukete pertsona asertiboa?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

37. jarduera

Asertibitate motak ikusiko ditugu jarraian. Duela gutxi izan duzuen egoera gatazkatsuren bat gogora ezazue, eta, launaka, jarraian dauden estrategiak erabiliz antzeztu. Hartu estrategiek dituzten aldeko eta kontrakoei buruzko oharrak.

Asertibitatea lantzen

Estrategia	Aldekoak eta kontrako iruzkinak
Disko akastuna Gure nahiak argi adierazten dituen esaldia behin eta berriz errepikatu, helburua ez lortzeko gure solaskideak gaia aldatu gabe edo gu manipulatu gabe.	
Asertibitate positiboa Besteenganako afektua adierazi. Nahiz eta modu desberdinean pentsatu, besteek balio positiboak izan ditzakete. Beste pertsonen	

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

balioak aitortzen eta komunikatzen ditugu.	
Asertibitate enpatikoa Gure solaskideak ulertzen ditugu, baita modu batean jokatzera eramaten dituzten beharrak ere, beraz, espero dugu, haiek ere gure motibazioak ulertzea.	
Asertibitate progresiboa Solaskideak asertibitate enpatikoari erantzun gabe eta gure eskubideak urratzen jarraitzen duenean gertatzen da hau. Gure jarrera indar handiagoz mantentzen dugunean, oldarkor izan gabe.	
Aurrez aurreko asertibitatea Solaskideak agindu zuena eta benetan egin duena adierazten dugu. Berarengandik nahi duguna esango dugu gero, minik eman gabe eta bidezko proposamena eginez.	
Lehen pertsonako enuntziatuak Objektiboki eta modu lasaian nahi ez dugun solaskidearen jokaera deskribatu, eragiten digun sentimendu negatiboa adierazi, eta gustatuko litzaigukeen jokaera azaltzen dugu (baita honek ekarriko lituzkeen ondorio onak ere).	

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Lainogunea Solaskidearekin ados egon gaitezkeen egia-zantzu bat aurkitzean datza, neurri batean bat egin dezakegula adieraziz.	
Galdeketa negatiboa Solaskideari bere kritika edo baieztapenak zehatzago azaltzeko eskatzen diogu, eraikitzaileak diren ala manipulatzaileak diren jakiteko helburuarekin.	

38. jarduera

Kasu baten azterketa

Peioren tutoreak, Maitek, eta ikastetxeko psikopedagogoak, Koldok, ikasle honen gurasoei elkarrizketa egiteko deitu diete. Ikasketa-zailtasun larriak ditu Peiok, eta ikastetxean denetarik probatu dute: klasean ez da jardueretan zentratzen, eta etxean ez ditu etxeko lanak egiten. Tutoreak behin baino gehiagotan izan ditu elkarrizketak amarekin.

Rosak, Peioren amak, Maiteri kontatu dizkio bere semearekin dituen zailtasunak. Guztiz bakarrik sentitzen da bere heziketan; Julenek, Peioren aitak, Maite haurdun zegoela etxetik alde egin zuen, eta ez du sekula semea zaindu. Kostata pasatzen dio epaileak agindutako dirua, nahiko eskasa dena, gainera.

Hasierako urteetan, Julenek ez zion bisitarik egin Peiori, eta ez zuen behin ere berarekin eraman. Duela bi urtetik, Julen beste emakume batekin dabil, eta hasi da asteburu batean bai eta bestean ez semea haiekin eramaten. Rosak asko sufritzen du horrekin: Peiok ikusten du nola Julenek ez dion kasurik egiten bere oraingo bikotearen seme-alabekin jolasten dabilen bitartean. Peiori ez dio

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

hanka sartzerik onartzen eta etengabe iraintzen du; besteei, berriz, mimoak eta barreak eskaintzen dizkiela.

Horrez gain, aitak oso eredu txarra ematen dio etxean: Julen eta bere oraingo bikotea umeen aurrean mozkortzen dira, eta etxea hankaz gora dago. Gainera, Julen ez da inoiz eskolako elkarrizketara joan, oso lanpetuta dabil beti.

Hau da Maiteren bigarren urtea Peiorekin, eta Koldori parte hartzeko eskatu dio. Koldoren irizpide psikopedagogikoen arabera, Peiok ezin du aurrera egin ikasketetan, bere egoera emozionala desegonkortuta dagoelako familia dela eta. Julenek Peioren heziketan parte hartu behar duela uste du, eta gaur da elkarrizketara etorri den lehen aldia, Rosaren ondoan.

Maite tutoreak elkarrizketari hasiera eman dio, eta gurasoei azaldu die Peiok zailtasun ugari dituela, eta ez duela ikasteko edo ordenarako ohiturarik: “Haur normala da, baina ez da adi egoten eta ez du interesik agertzen klasean egiten dugunarekiko”. “Oso kezkatuta gaude, ez delako ari ikasten ikasi beharrekoa”. “Gustatuko litzaiguke etxean jokaera arau hobeak izatea”. Rosak berehala erantzuten du, defentsiban: “Nik ezin dut ordenarik jarraitu berarekin, bere aitaren etxera doanean dena onartzen diotenez… Ez dit kasurik egiten. Bueltatzen denean jasanezin dago! … Nola heziko du semea, ez bada ganorazko bizimodua izateko gauza, ez badu inolako baliorik?”.

Horren aurrean, Julen pizten da: “Banekien ez nintzela etorri behar, Mariak esan dit. Zertarako? Zuk niri moralari buruzko lezioak emateko? Zuk ez dakizu garaiko mutil-lagunak zenbat iraungo dizun eta! Egun bat ala aste bete!”. Maitek ezin dio eutsi: “Hara! Errespeturik gabe hitz egiten besterik ez dakizu? Nola ausartzen zara Rosa kritikatzen? Eskerrak eman beharko zenizkioke! Ez zara konturatzen Rosak bakarrik hazi duela ume hau, bikotekide baten laguntzarik gabe eta lan mordoa eginda?”.

Koldo animoak baretzera dator: “Beno Julen, ulertzen dugu Rosak min eman dizula, baina nahi gabe egin du. Bera oso agobiatuta dago, normala da. Bera eta Peio oso bakarrik daude, eta umeak aitarekin egoteko beharra du. Futbolean jokatu, edo dominoan, baina gizonen gauzak egin, egun osoa pasatzen baitu maistren eta amaren artean”.

Maitek ez du ondo hartu Koldoren komentarioa. Oso matxista iruditu zaio... Orduan, Julen bere onetik atera da: “Baina beno! Nork esango dit niri zer egin behar dudan nire semearekin? Nik oso gogor egiten dut lan, eta ez zait ezertarako heltzen. Eta gainera... tipa honi pasatu behar diot dirua... Eta orain etorriko zait zu bezalako matxirulo bat, honetaz ezer ez dakiena, eta esango

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

dit umearekin olgetan egin behar dudala? Niri ez deitu berriro, ez naiz berriz bueltatuko ta! Ez badakizue nola irakatsi umeari, zuen arazoa da!".

"Bueno Julen, ez zaitez horrela jarri; seguru zuk ahal duzun guztia egiten duzula…" dio Koldok, bakea berreskuratzeko asmotan. Maitek mozten du: "Nola ez dakidala irakasten! Orain dela 20 urte naizela maistra! Etxean eredu ona duten umeek oso ondo ikasten dute nirekin. Baina ez nau harritzen Peio txarto portatzeak, berak duen ereduarekin, horrelako aitarekin... Esaten zidan bai bere amak, gaixua, ulertzen dut bai... »

« Maite, isildu zaitez! Ixo!». Ohiukatu du Koldok. Isilune deserosoa izaten dute. Julen zutik jarri da. « Banoa, nahikoa izan dut!». « Eta zuk eskolara penagarri geratzera etorri nahi baduzu, aurrera, baina ni ez nauzu berriro engainatuko ; nahikoa engainatu ninduzun haurdun geratu zinenean!». Aterantz joan da.

Zein arazo antzematen dituzu elkarrizketa horretan?

Elkartu zaitezte taldeka, eta esan zein arrazoi eta sentimendu dituen partaide bakoitzak esandakoak esateko. Bukatzeko, komentatu zeintzuk diren Peioren beharrak.

39. jarduera

Enpatia eta asertibitatea hobeto ezagutzen ditugu orain. Joan gaitezen hurrengora: entzuketa aktiboa. Irakur ezazu beheko aipua, eta komenta ezazu zure ondoko ikaskidearekin. Zer esan nahi du adituak? Ados zaudete bere ikuspegiarekin?

> *En un mundo visual, sobreinformado y sobreexpresivo, la escucha activa y la no-expresión ayudan a la comprensión mutua. (Fernando Bercebal)*

ENTZUKETA AKTIBOAREN DEFINIZIOA

Entzuketa aktiboa Carl Rogers-en lanean oinarritutako pertsonen arteko komunikazioaren teknika edo estrategia bat da. Harekin gatazken ebazpena landu daiteke, besteak beste. Rost-ek 2002an esan zuen hartzailea entzuteko prestatzen duten portaera eta jarrera multzo bat dela, hizketan ari den

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

pertsonarengan arreta ipintzeko eta feed-back-a emateko. Berbetan ari denarekiko interesa azaltzea ere badakar. Hartzaileak hizlaria ulertu duela erakusten du: hitzekin batera, sentimenduak eta pentsamenduak ere bai. Hezkuntzan ezinbesteko gaitasuna da, bestela, irakaslea ez da gai izango ikasleen jarraipena ahalik eta ondoen egiteko.

40. jarduera



Entzuketa aktiboari buruzko artikulua irakurriko dugu jarraian. Galerari eta doluari lotuta idatzia da, baina guk jasoko ditugu erabilgarri izango zaizkigun estrategia komunikatiboak testu honetatik.

Komunikazioa: entzute aktiboa

Galera esanguratsuetan izaten diren dolu-prozesuetan, laguntza kualitatiboa komunikazio-faktore da. Laguntzea arte bat da, irakats eta ikas daitekeena, baina ezaugarri pertsonal batzuk eskatzen ditu: errespetua, elkartasuna, pazientzia, positibotasuna eta enpatia dosi handiak. Enpatia beste pertsona baten egoera norberarena izango balitz bezala ulertzea da, nortasun desberdinak ditugula gogoan izanik betiere. Beste norbaiti enpatikoki laguntzeko, kalitatez entzuten jakin behar dugu, eta ekintza horri entzute aktibo deritzo.

Entzute aktiboa praktikatzeko, kontuan izan behar dira honako elementu hauek: hitza kendu gabe entzuten jakin behar dugu; arreta eta errespetua adieraziko duten distantzia eta gorputz-jarrera izan behar ditugu; hitz egiteko baino entzuteko interes handiagoa izan behar dugu; eta solaskidearen hitzezko mezuak nahiz hitzezkoak ez direnak arretaz jaso behar ditugu. Horrez gain, beste baliabide batzuk ere erabili behar ditugu, hala nola galderak egiteko eta laburtzeko baliabideak, eta informazioa itzuliz elkarrizketa gidatzeko baliabideak. Horrela, bada, laguntza behar duen pertsonak arretaz entzuten diotela eta ulertu egiten dutela sentituko du.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Entzute aktiborako ariketa praktikoa:

1.- Hiru pertsonaz osatutako taldeetan, hiru rol esleituko dira : A, B eta C, eta rolak txandakatu egingo dituzte.

2.- A.- Arazo pertsonal jakin bat azalduko du (hiru minututan). B.- Entzute aktiboari dagokion jarrera erakutsiko du. C.- Behatu egingo du.

3.- Hiruko taldean, esperientziaz hitz egitea. Nola sentitu naiz rol bakoitzean? Metodologia: pertsona batek bi minutuz hitz egingo du, eta beste biek arreta handiz entzungo dute, inolako esku-hartzerik egin gabe. (Guztira, sei minutu).

4.- Talde handian esperientziaz hitz egitea.

Metodologia. Lehenengo “telegrama” jokoa egiten da: bakoitzak, txandaka, une horretan nola sentitzen den adieraziko du eta gehienez hitz bat edo bi edo keinu bat erabiliko du hori adierazteko. "Telegramak", denbora gutxian, taldea nola dagoen ikusteko aukera emango du. Ondoren, nahi duenak ariketa honetan izandako esperientzia zabalagoa azalduko du (minutu bat pertsonako). Taldea handia bada eta denbora aurreztu nahi badugu, parte-hartzaileei esango diegu pertsona batzuek baino ezingo dutela hitz egin.

5.- Parte-hartzaileen eta ariketa proposatu duenaren arteko elkarrizketa.

Metodologia. Aurrez txandarik ezarri gabe, nahi dutenek ariketari buruzko galderak egingo dituzte, edo azalpenak emango dituzte.

Entzute aktiborako saihestu beharreko adierazpenak: “Ez arduratu” esatea. “Ez negarrik egin” esatea. “Dena ondo joango da. Ez horretan pentsatu” esatea.

Entzute aktiborako saihestu behar diren jarrerak: - Iritzia ematea.- Epaitzea.- Aholkatzea.- Norberaren bizipenetan oinarrituta orokortzea.- Paternalista izatea.- Presa duzula adieraztea, inolako begirunerik gabe.- Oztopo fisikoak edo ez-fisikoak egotea: altzariak, argia...- Jarrera teknifikatua erabiltzea.- Ihes egitea.- Gehiegizko informazioa ematea.- Baliorik gabeko informazioa edo une horretan egokia ez dena ematea.- Gezurra esatea.- Epaitzen edo kalifikatzen duten adierazpenak erabiltzea (Adib.: “arrak bezala”... edo “aitona”, “neskato”, “txiki”...).

Entzute aktiborako bultzatu behar diren jarrerak: - Hitzezkoa ez den komunikazioa zaindu behar da: ahotsaren tonua eta bolumena.- Errespetuzko harreman fisiko maitekorra izan behar da (ondo hartzen badu).- Jarrera atsegina edukitzea.- Entzutean lasaitasuna adieraztea.- Aurreiritzirik ez

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

izatea.- Talde-lanean aritzeko jarrera izatea.- Bakarkako zein taldeko elkartasuna erakustea.- Galdetzeko eskubidea sentitzea.

Adierazpen baliagarriak: - Begietara begiratzea.- Interesa eta ulermena adieraztea.- Intimitatea errespetatzea.- Toki egokia bilatzea (ahal bada).- Une horretan mina sentitzen duena erantzun egokiena emango dionarengana zuzentzea (sendagilearengana, gizarte-laguntzailearengana, psikologoarengana, aholkulariarengana...).- Geure burua hobeto ezagutzeko, lehenik eta behin, galerei, heriotzari, sufrimenduari eta doluari buruz geure buruarekin lan egitea.- Guztia komunikazioa dela onartzea.- Sufrimenduan laguntzeko ikastea eta praktikatzea.- Errespetuzko isiltasuna izatea.- Noizean behin, baliagarria izaten da besteak komunikatzen duenari buruz ulertzen duguna laburtzea, esaterako: “Urliarekin ez duzula hitz egin esan nahi duzula uste dut”, edo “gertatutakoaren arrazoia bilatu nahi duzula uste dut”, “ea ondo ulertu dudan: zapuztuta, edo haserre, edo triste, edo beldurtuta sentitzen zarela uste dut...”.- Era honetako esaldiak esatea: “gogorra da benetan”, “logikoa da horrela sentitzea”, “gizalegezkoa da horrela sentitzea”, “beldurtuta, edo haserre, edo triste, edo nahastuta egoteko modukoa da...”, “une honetan ez dakit zer esan. Laguntzeko prest naukazu”, “gai hau beste une batean azter dezakegu”(ahalik eta gehiena zehaztu, pertsona horrek behar badu eta ahal bada).

Berri txarrak iragartzeko formula baliagarriak: - Gertatzen ari dena garrantzitsua da...- Egoerak okerrera egin du...- Hil egin da.- Gure artetik alde egin du.- Bai, hil egin da.- Nahi baduzu, horrelako uneetarako telefono-zenbaki bat eskain diezazuket...

Galderak egiteko zenbait baliabide: - Nola gertatu zen?- Zerk arduratzen zaitu?- Zalantzarik baduzu?- Nola jakin zenuen?- Zerk kezkatzen zaitu?- Elkarrekin egin dezakegun zerbait badago?- Beste zerbaitez hitz egin nahi duzu?- Hitz egiteko, laguntzeko...norbait bilatzea nahi duzu?- Zure sendagilearekin hitz egin duzu?- Bakarrik egon nahi duzu?- Bakarrik uztea nahi duzu?- Egun batzuk barru dei diezazuket?- Beste zerbait egin dezaket?- Zurekin gera naiteke?- Sentipenak modu osasuntsuan bideratzeko moduak ezagutzen dituzu?- Nola irudikatzen duzu etorkizuna?- Zein zentzu eman nahi diozu zure bizitzari?

(*Hik Hasi*. “Heriotza heziketan”. 2003ko uztaila. 19-20)

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ezagutzen zenituen *enpatia* eta *asertibitatea* terminoak? Zuk pertsona enpatiko eta asertibotzat duzu zure burua? Irakasle onak enpatia eta asertibitatea izan behar dituela uste duzu?

Entzuketa aktiboari buruz ere lan egin duzu berriki. Elkarrizketetan, badira nagusiki hitz egiten edo nagusiki entzuten egoten direnak. Zeinekin identifikatzen zara zu? Irakasle batek diskurtso zuzena, egituratua eta egokia osatzen jakin behar du, baina besteari entzuteko gai ere izan behar da. Izan ere, komunikazioa elkarreraginean oinarritzen da; igorle eta hartzaile gara denak, tarteka. Zer diozu honi buruz? Badakigu isiltzen eta besteari entzuten?

41. jarduera

Lan ebaluagarria baino lehen, klasean egiteko bi simulazio:

A) Haur Hezkuntzako irakaslea zara, eta, ikasturtea hasita dagoenean, hilabete berandu, Mohamed ikaslea heldu da. 4 urte ditu, eta ez ditu euskara edo gaztelania ezagutzen. Handik hilabetera, bere amarekin eta honen lagun batekin elkarrizketa izateko aukera duzu. Lagunak itzultzaile-lana egingo du. Prestatu itzazu ikasle honen heziketarako behar duzun informazioa lortzeko galderak. Irekiak izan daitezela, aurreiritzirik gabekoak eta konfiantza-sortzaileak.

B) Olatz zuen lau urteko ikaslea da. Aspaldi dakizue ez zaiola kolore arrosa gustatzen, ilea beti mototsean bilduta daramala, eta panpinekin baino autoekin jolasten aritu dela orain arte. Klaseko liderretako bat da, eta azken aldi honetan haserre eta liskarti dabil.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Bere amak aurreko astean deitu dizue, eta bilera egiteko eskatu dizue. Gaur zarete elkartzekoak. Olatzek esan dio bera ez dela neska, mutila dela. Eta aitak ez du hori onartzen, txorakeriarik ez esateko esaten dio, eta erosi dion soinekoa janztera behartu nahi du.

42. jarduera (lan ebaluagarria)

GURASOEKIN BILERA

1. Prestaketa

Hiruko taldeak osatu, eta irakasleak emandako egoeraren arabera egingo duzue dramatizazioa (aldez aurretik, zuek praktiketan ezagutu dituzuen arazoak idatzi eta irakasleari emango dizkiozue; berak, haietako bat aukeratuko du eta zuei emango dizue bueltan elkarrizketa osatzeko). Bertan agertuko dira ikasleak duen “arazo txikia” eta gurasoek jokatuko dituzten rolak.

2. Dramatizazioa eta grabaketa

15 minutu izango dituzue gehienez elkarrizketa gauzatzeko. Zuetako batek irakaslearen rola hartuko du, eta beste biek familiaren ordezkariena. 2-5 minutu pasatzean, rolak aldatuko dituzue, eta elkarrizketarekin jarraituko duzue; berdin egingo duzue beste bi aldiz beste 2-5 minutu pasatzean (ikasle bakoitzak hiru rolak jokatuko ditu horrela, elkarrizketan etenik egin gabe). Irakasleak abisatuko dizue noiz aldatu behar duzuen rola, txalo bat joz.

3. Balorazioa eta hobekuntzarako plana

Elkarrizketa balioetsiko dugu hiru alderditatik: ahozko komunikazioa, diskurtsoaren antolaketa eta harremanaren kudeaketa. Balorazioa egin ondoren, hobekuntza-plana pentsatuko da, (ikasleak hobetu nahi dituen hiru alderdi idatziko ditu). Jarraian duzue autoebaluazioa egiteko taula.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ahozko komunikazioa: ahotsa, gorputza, hizkuntza, txandak.	
Diskurtsoaren antolaketa: harrera, arazoaren planteamendua, irtenbidea adostea.	
Harremanaren kudeaketa: enpatia, asertibotasuna, jarrera baikorra, gatazkaren ebazpena.	

Hobetzeko alderdiak:

_____

_____

_____

_____

_____

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Material osagarria

Albaladejo, Marta. (2010). *Cómo decirlo. Entrevistas eficaces en el ámbito educativo*. Bartzelona: Graó.

Intxausti, Mari Jose. (2015). *La entrevista: construir la relación con las familias (0-6).* Bartzelona: Grao.

Elkarrizketa-fitxa

Ikaslearen izena
.....

Maila
.....

Tutorea
.....

Elkarrizketa nork eskatu du?
.....

Elkarrizketako partaideak
.....

Data
.....

Elkarrizketaren helburua
.....
.....
.....

Ikastetxearen ikuspuntua
.....
.....
.....

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Familiaren ikuspuntua
.....
.....
.....

Ikastetxearen eta familiaren konpromisoak
.....
.....
.....
.....

Oharrak
.....
.....
.....
.....

Ondorengo hausnarketa (elkarrizketaren arrakasta-maila 1etik 10era)
.....
.....
.....
.....
.....

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

7. DISKURTSO PROFESIONALAK: AHOZKO AZALPEN FORMALA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ahozko diskurtsoari buruz, honako hau diote Calsamigliak eta Tusón-ek (2007):

- Ezintasun fisiko/psikikorik ezean, denok ikasten dugu berbetan jendartean (sozializazioaren bidez). Idazten/irakurtzen, ordea, ikasketa formalean.
- Naturala da, gorputzarekin egindakoa (idatzia artifiziala, teknologia erabili).
- Harreman sozialak ahalbidetu eta eraiki, eguneroko ekintzak gauzatzeko erabili.
- Komunikazioaren egitura hirukoitza: segida hitzezko-kinesiko-paralinguistikoa

Steve Jobs-ek, *Apple* enpresa sortu zuenak, ohitura bitxia zuen: lantokiko igogailuan langile berri batekin topo egiten bazuen, galdetzen zion ea zein zen berak enpresa hobetzeko zuen ideia, eta langileak segundo batzuk zituen, igogailuko ateak zabaldu artekoak, bere ideiak ezagutzera emateko. Jobs-i gustatzen bazitzaion entzundakoa, agian, bere ideia martxan jarri eta lanpostu hobea lortu zezakeen langile horrek! Zure ustez, gai izango zinateke minutu batean etorkizunean irakasle-lanean hasten zarenean egin nahiko zenituzkeen hobekuntzen, berrikuntzen edo aldaketen berri emateko?

43. jarduera



Sei artikulu irakurriko ditugu denon artean. Bakoitzak bat irakurriko du, eta artikulu bera dutenak taldeka bilduko dira, launaka, haien artikuluak jendaurrean ahozko aurkezpen bat egiteko ematen dituen jarraibideak eskema batean jasoz. Eskema horretatik abiatuta, ahozko aurkezpena ebaluatzeko errubrika bat sortuko dugu. Hori amaitzen dugunean, artikulu bera irakurri dutenen errubrikekin konparatuko dugu taldean egindakoa, eta errubrika guztiak bateratuko ditugu.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Azkenik, talde handian aurkeztuko ditugu sei artikuluetatik abiatutako sei errubrikak, eta bateratzen saiatuko gara, hortik aurrera ahoz egiten ditugun aurkezpenak baloratzeko tresna izan dezagun.

Sei artikuluen erreferentziak:

Garro, E. et al. (2012). *Jendaurreko ahozko aurkezpenen lanketa Unibertsitatean Sekuentzia Didaktiko eta praktika gogoetatsuaren bidez*. http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/18/18195219.pdf

Zelaieta, E. eta Camino, I. (2014). *Inork ez du erasotzen, baina «defentsa» deritzogu: Gradu Amaierako Lanaren defentsa prestatzeko gida*. https://www.ehu.eus/ojs/index.php/Tantak/article/view/14117/12513

Onieva López, J.L. (2016). *Estrategias didácticas y recomendaciones para la defensa oral de los Trabajos Fin de Grado y Fin de Máster*. http://revistas.um.es/reifop/article/view/206331

Roso-Bas, F. et al. (2017). *Competencia comunicativa: Validación de una escala para evaluar la comunicación no verbal durante el discurso*. https://www.unav.edu/publicaciones/revistas/index.php/estudios-sobre-educacion/article/view/8715

Becerra, M.T. (2017). *La habilidad de hablar en público. Una experiencia formativa con estudiantes universitarios*. https://revistas.um.es/reifop/article/view/270631

Calvo, E. eta Calvo, S. (2017). *Diseño de una rúbrica para evaluar la comunicación oral en ingeniería*. https://www.upo.es/revistas/index.php/IJERI/article/view/2305

JENDAURREKO AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Transmititzen dugun informazioa (Nierenberg, Gschwander, 1989):

- %55 ikusten dena (gorputza, baliabideak).
- %38 entzuten dena (ahotsa, hizkera).
- %7 esaten dena (diskurtsoa).

Hitzaldiak aurretik prestatu behar dira, eta entseguak egin; baina inprobisatzeko prest ere egon behar gara, inoiz ez dugulako aldez aurretik jakingo zelakoa izango den egoera komunikatiboa unea heldu arte.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900



Jendaurreko ahozko aurkezpen bat prestatzeko, alderdi desberdinak izan ditzakegu kontuan, baina guk hiru multzotan sailkatuko ditugu: 1) Diskurtsoa, 2) Elkarreragina, 3) Ez-hitzezkoa (gorputza eta ahotsa).



DISKURTSOA

-Aurretik prestatu behar da esango duzuna, eta buruz ikasi entseguen bidez.

-Gidoia egin eskema eskura izateko, eta behar diren datu zehatzak apuntatuta edukitzeko. Prestatu zer-nola-zertarako esango duzun.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

-Egitura zaindu, ideiak ordenatu eta lotu (hasiera-garapena-bukaera). Erabaki nola hasiko zaren (atentzioa lortuko duen zerbaitekin) eta nola amaituko duzun (publikoaren gogoan zer geratzea nahi duzun aukeratu).

-Lexiko eta erregistro formal-akademikoa erabili. Ezin dugu jendaurreko ahozko jardunean gure etxeko sofan egongo bagina bezala hitz egin.

-Makuluak ekidin, (*eee*, *baaa*, *osea*, *bueno*, eta horrelakoak gehiegi ez esaten ahaleginduko gara, bestela hori da publikoak “entzungo” duen bakarra). Hitzei irudiekin lagundu, diskurtsoak “kolorea” izan dezan (konparazioak, metaforak, esaerak, pasadizoak, adibideak, birformulazioak, hitz-jokoak, aipuak, …).

-Zuzen, egoki, koherente eta kohesionatu hitz egin, akatsak egiten baditugu, diskurtsoa ilundu edo oztopatuko dugu eta.

-Mezu pertsonala sortu eta komunikatu; horrela hartzaileen gogoan geratuko da.

-Sintesi-, analisi-, garapen-gaitasunak landu diskurtsoa ahalik eta aberatsena izan dadin.



ELKARRERAGINA

- Hartzailearentzat hitz egin. Egon zaitez adi bere erantzunei eta horren arabera saiatu zaitez moldatzen zure diskurtsoa. Ezagutu ezazu zure solaskidea ahal beste, diskurtsoa berarentzat egokitzeko.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Ulermena ziurtatzeko galdera erretorikoak egin. Tarteka, galderak egin, hartzaileen baiezkoa ikusten baduzu haien aurpegian, aurrera. Bestela, birformulatu esan berri duzuna.

- Mezu eta hizkera argiak sortu, zehatzak izan daitezela. Aldez aurretik argi izan behar duzu buruan gero esango duzuna. Zuk ez baduzu argi, zuk ez baduzu ulertzen, hartzaileek gutxiago.

- Gogoa, ilusioa, esaten duzunarengan sinesten duzula transmititu. Tonua monotonoa bada, eta hizlariak amaitu nahi duelako arin-arin hitz egiten badu, hartzaileak deskonektatuko du, edo hizlariarekin batera sufrituko du. Bila ezazu zerbait diskurtsoa zuretzat motibagarria izan dadin.

- Konfiantza eta auto-estimua izan. Zuk egin ahal duzu eta ondo egin ere. Zure diskurtsoa da, landu duzun gaia. Entseatu duzun aurkezpena. Beraz, animo eta gora bihotzak!

- Jarrera positiboa izan, lasai eta seguru jardun. Giro ona sor dezakezu zure jarrera baikorra, alaia edo lasaia bada. Beraz, saia zaitez ahalik eta gusturen egoten.

- Beldur eszenikoa kudeatu (urduri/lotsatuta zaudela onartu eta egin aurrera). Denok izaten dugu adrenalina igoera jendaurrean aritu behar garenean. Kontua da, hori ahalik eta ondoen kudeatzea. Hartu arnasa sakon eta hasi, hasi eta gero bidea egitea errazagoa da eta.

- Akatsetatik ikasi, kritikak onartu, hobe-nahi aldartea izan. Beti hobetu daiteke egindako lana. Bizitzan etengabe ibiliko gara ikasten. Beraz, aurkezpenetan, egin ezazu autoebaluazioa amaitu ondoren, eta ahalegindu hobekuntza txikiak egiten aldi bakoitzean.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Entzuketa aktiborako jarrera egokia izan (jarrera irekia, solaskideari begira, distantzia egokia, isiltasuna, begirada naturala, baieztapen- eta laguntza-keinuak, ahots-tonu gogoetatsua eta erritmo lasaia, argitzeko eskatu, galdera irekiak egin, ulermena ziurtatu parafrasi eta laburpenen bidez, elkarrizketan parte hartu bestearen ekarpenak kontuan hartuz).

Beldur eszenikoa

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



EZ-HITZEZKOA

- Baliabideak egoki aukeratu eta erabili. Gomendagarria da ahoz esaten ditugun hitzak irudiz edo ikus-entzunezkoekin ilustratzea. Hala ere, ez dute protagonismoa hartu behar, euskarriak dira, baliabideak, lagunduko diotenak hizlariari bere diskurtsoarekin.
- Keinuak, begirada, jarrera zaindu. Gure gorputzak ere hitz egiten duelako eta ikus-entzuleekin konektatzeko bidea delako.
- Tonua, erritmo eta bolumen egokiak izan. Ahotsaren bidez transmititzen ditugu emozioak, nekatuta edo aspertuta gauden, interesa dugun ala gaia gustatzen zaigun.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Isilune eta pausa esanguratsuak egin. Urduritasunak azkar eta asko hitz egitera bultza gaitzake. Hala bada, saiatu erritmoa moteltzen. Geldiuneak egitea beti izango da interesgarria arreta lortzeko edo nahi dugun lekura bideratzeko.
- Entzuketa aktiboa egin. Oso garrantzitsua da tarteka jakitea nola dauden hartzaileak: gure diskurtsoa jarraitzen ari diren, galdu diren, parte hartu nahi duten…
- Gorputza erabili diskurtsoari laguntzeko. Hitzei dinamismoa eta mugimendua eman diezaiokegu gorputz-adierazpena erabiliz, adibidez, eskuekin edo buruarekin.
- Espazioa erabili hartzailearengana hurbiltzeko, eta denbora ondo neurtu. Gelak aukerak emango dizkigu solaskideen artean distantzia laburtzeko edo egokitzeko. Izan zaitez kontziente zuk eta hartzaileek hartzen duzuen lekuaz eta kokapenaz. Denbora ondo banatu hasierako girotzearekin, diskurtsoaren atal desberdinekin eta itxierarekin; oreka egon dadila atal guztien artean.
- Jarrera irekia izan, eta ez gehiegi mugitu. Besoak edo hankak gurutzatzean, aurrean dugunari adierazten dioguna da gure burua babesten ari garela, ez gaudela eroso une horretan. Berdin gertatzen da asko mugitzen garenean, gainera, urduritasuna transmiti dezakegu modu horretan.

Gorputz-adierazpena

- Norberaren irudia zaindu. Hau da, jendaurrean ahozko aurkezpen bat egiten dugunean daramagun arropa edo orrazkera “nahita” daramagula sentitu, propio, egoera horretarako aukeratu dugula.

- Jarrera eta mugimendua, aurretik esan bezala, hitzek beste esaten dute; beraz, izan jarrera irekien eta mugimendu lasaietarako joera.

- Keinuak honako hauek izan daitezke (azken biak dira zaindu beharrekoak):

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

  - Ikurrak (zeinu kulturalak; adib. “isilik” esateko).
  - Ilustratzaileak (hitza irudiz hornitu, osatu).
  - Erregulatzaileak (elkarreragina kontrolatu, txanda hartu/eman).
  - Emozio-erakusleak (gorpuzkerak emozioen intentsitatea adierazi).
  - Egokitzaileak (egoerara egokitzeko keinuak, tentsioa askatzeko).

- Barrea beti da lagungarria egoera bateko tentsioa jaisteko, adibidez, arazo teknikoak daudenean, umorea erabil dezakegu. Baina, kontuz, edozein txistek ez du balio.
- Begiradak funtzio desberdinak ditu (kontaktua bermatzen du):
  - Funtzio kognitiboa, portaeraren egiaztatzailea, erregulatzailea eta adierazkorra (bizitza sozialarekin du zerikusia).
- Kontaktu fisikoa egon daiteke, ala ez. Egoerak eskatuko du agian, baina oso ondo zaindu behar da konfiantzarik ez dagoenean saihestuz.
- Norberaren espazioa handiagoa ala txikiagoa izan daiteke, solaskidearekin dugun harremanaren arabera eta egoera komunikatiboak eskatzen duenaren arabera. Askotan, pertsonen arteko hierarkia markatuko du.

Ahotsa

- Arnas hartze albo-diafragmatikoa da erabili beharrekoa. Bularretik hartzen badugu airea, laster amaituko zaigu, eta gerta liteke eztarria behartzea.
- Ahotsaren ezaugarriak honako hauek dira:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Bolumena.
- Intonazioa, tonua.
- Abiadura, erritmoa.

- Isiltasuna, geldiuneak, gure diskurtsoaren parte izan behar dira.
- Ahoskera ere oso garrantzitsua izango da, bereziki talde handi bati hitz egiten diogunean.
- Ahotsa zaindu. Irakasleon tresna nagusia da.
- Ahotsak emozioak transmititzen ditu. Beraz, erabil ezazu hartzaileak animatzeko, lasaitzeko, auzitan jartzeko, partaide bihurtzeko, hausnarketara bideratzeko…



Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Nola hitz egin jendaurrean? Galdera honi erantzuna eman dio George Laferrière-k. Antzerkiaren eta hezkuntzaren munduan ibili izan da bere bizitza osoan zehar, eta horrela erantzun dio galdera honi:

Pertsona bakoitzak bere buruarenganako konfiantza landu eta garatu behar du. Eguneroko egoerak erabiliko ditu horretarako, jendearekin ahoz komunikatzen ikasten joateko praktikaren bidez; horrela, ikusizko eta entzunezko memoria garatuko dugu, eta eguneroko bat idatziko gertatutakoak jasotzeko. Norbaitek ezin badu gozatu ahozko jarduera publiko batekin, arazoak izango ditu adierazteko eta komunikatzeko. Ezagutza, teknika eta esperimentazioa dira hiru ardatzak. Hasieran, hartzaileekin topagune bat sortu behar dugu, erritmo eta energia egokiak erabiliz. Garapenean ideiak azaltzeko, publikoari egokitutako estrategiak pentsatu. Amaieran, berriz, mezuaren goraldia bilatu behar dugu esandakoa laburtuz eta ondorio kitzikagarriak emanez. Zaindu ezazue zuen irudia eta giroa, prestatutako diskurtsoarekin batera. Eta asko praktikatu, nork bere burua ezagutzeko eta sortzeko. Finean, sedukzioa eta performancea dira gakoak.

> *Tomar la palabra en público es transmitir un saber con los mejores medios de comunicación posible. Sólo las palabras no pueden lograrlo. (Laferrière, 2001)*

> *Aprender a escuchar a su público, saber improvisar en el sentido de saber adaptarse a la situación. (Laferrière, 2001)*

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

44. jarduera

Hurrengo egunerako etxeko lana. Bilatu zure logelako armairuan eta aukeratu zure arropen artean normalean klaserako janzten ez duzun jantziren bat (ilea eta aurpegia ere alda ditzakezu orrazkera, edo makillajearen bidez, nahi baduzu). Klasera joango zara ez ohiko itxurarekin, baina bi baldintza beteta: 1) zure arropa eta osagarriak erabili behar dituzu, 2) eroso sentitu behar zara ez ohiko itxura horrekin.

45. jarduera

Ahozko trebetasunak lantzeko, ezinbestekoa da jendaurrean hitz egiteko aukera guztiak aprobetxatzea (praktika beharrezkoa da hobetzen joateko). Hori dela eta, hiru jarduera egingo dituzue ahozko trebetasunak lantzeko. Beraz, 2mC, Olerkiak eta mikroipuinak eta euskal kantutegia jardueretan, jarrai itzazue honako pauso hauek:

- **Behatu** (hobetu nahi ditugun alderdiak antzemateko).
- **Planifikatu** (egindakoa baloratu eta hobetzeko plana prestatu).
- **Praktikatu** (esperimentatu eta hobetzen joan).

2mC jarduera. Binaka jarriko zarete eta 2 minutuko Curriculum Vitaea prestatuko duzue bideoan grabatzeko. Bakoitzak berea. Egoera honako hau da: lan-eskaintza baten berri izan duzue, eta izugarri erakargarria iruditu zaizue. CVak bidaltzeko eskatzen diete lana lortu nahi dutenei, baina bideo-formatuan eta 2

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

minutuko luzera mugarekin. Zuetako bakoitzak prestatuko du zer, nola eta non kontatuko dion kamerari, eta elkarri grabatuko diozue sakelekoaren laguntzaz. Amaitzean, irakasleari emailez bidali egindako bideo-grabazioak (*we transfer* plataforma erabili dezakezue horretarako).

46. jarduera

Ahotsarekin emozioak transmititzen

Irakurri hurrengo paragrafoa puntuazioa markatuz eta ahalik eta tonu neutroenean. Ikusiko duzu ez duela ahozko eduki logikorik:

Bat bi hiru lau. Bost sei zazpi zortzi bederatzi hamar. Hamaika hamabi hamairu! Hamalau, hamabost, hamasei hamazazpi, hamazortzi, hemeretzi, hogei. Hogeita bat, hogeita bi, hogeita hiru hogeita lau hogeita bost. Hogeita sei hogeita zazpi eta hogeita zortzi. Hogeita bederatzi.

Orain, irakur ezazu berriro, honako pertsona hauei esango bazenie bezala:

- Zuk egin ez duzun zerbaitengatik zuri oihuka hasi den auzoko bati.

- Berak egin beharko lukeen lan bat zuk egin dezazun nahi duen lankide bati.

- Kontu legal bati buruzko informazioa eskatzen dizun urruneko senide bati.

- Zure etxetik bere etxera heltzeko zer egin behar duen galdetzen dizun zure lagun batzuen alaba txikiari.

- Oso pozik, loteria tokatu zaiola esan dizun zure lagun min bati.

- Hurbileko lagun minen artean hil berri den zure lagun min bati bere hiletan.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

- Mundu honetan gehien maite duzun pertsonari, izugarri maite duzula esateko.

47. jarduera

Zutik jarriko gara, eta binaka alboko ikaskidearekin (ez baduzu, bila ezazu bikotea osatzeko norbait). Minutu batez (irakasleak neurtuko du denbora) aurrez aurre jarriko gara, eta elkarri begiratuko diogu begietara hitzik esan gabe.

48. jarduera

Itxaro Borda eta Oier Guillan poetak entzungo ditugu haien olerki bana errezitatzen. Erreparatu iezaiozue irakurtzeko moduari: intonazioa, bolumenaren igoera eta jaitsiera, pausak, erritmo-aldaketak…

http://www.susa-literatura.eus/liburuak/poes1135

Imagina ditzakeen sirenak karrasika euriaren
ateri bulta laburretan eta haserrez pintatu
hormak manifestaldien ondoko gau ilunean
nahiz imagina dezakeen horma berdinek gorderen

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

dituztela herdoilak irentsi lantegi abandonatu
zenbait eskugabezia imaginatzen duna?

Nolabait tabernako tepo keztatuan hedatzen dun
grisaren zorigaitza sirenak karrasika medikua
non dago imagina ditzakeen beldur barneratuak
gorrotoak zein latzak gureek irabazi dute egun
ere pentsa ezan hasgabezia imaginatzen duna?

Plaza arroseko jargi publikoetan plegaturik oh
daudenek kontatuko dinate nola erre zen Z.ren
fabrika urte asko duela gerogabezia imaginatzen duna?

Eta hor nagon euriaren ateri bulta laburretako
balizkako lehorretan grisaren usaina larrutik
ken desiraz
hitaz ametsetan
arrotzen ugarte uhargia haizelakoan.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

http://www.susa-literatura.eus/liburuak/poes5302

PAPEREZKO BARATZEAK

Hildakoen ispiluek ahaztu dutena naiz.

Erein dut poza eta jaio dira ileak.

Bizi naiz orpoetan.

tud ihan istuah adarigeb erin alon tikad ze ate

Zakarra da nire ahotsa,

bizi naiz ezpainetan.

Zaharra da nire ahotsa,

oroimenaren adinekoa.

Suharra da nire ahotsa,

itsaso hautsien tamainakoa.

Erein ditut malkoak eta jaio dira sustraiak.

Bizi naiz hortzetan.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Nire irribarreak amorruaren antza dauka.

Txantxar isilaren soldatarekin sendatzen ditut

oholtza hautsien dardarak.

kilios naeztlag arekua okeztirrah aned ad neztlag

Erein ditut ferekak eta jaio dira ukabilak.

Bizi naiz biriketan.

Erantzi dut biluztasuna,

azaletik zenbatu ditut galera alaien izerdiak.

Orbelen moduan egiten dute krask aitortzek

nire zainetan.

Erein ditut uneak eta jaio dira telefonoak.

Zenbakiak eta ahotsak,

nortasun erdibituak:

izan ala besteek diotena izan.

Belarra da munduaren adatsa,

hanka depilatuen neurriko autobideak,

uka bideak, oka bideak.

aortaet neraztoireh aortaet neranusatnidrog aortaet akiteop nerakitilop

aortaet aortaet

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Belarri itsuetan hitz jendetsuak.

Bizi naiz eskuetan.

Umorearen gorotza arnasten dut

ironiaren erbestean,

marra bete lerro,

lerro bete hortz,

atzazal hotz,

asunen isun.

Erein ditut uztaiak eta jaio dira zinikoak.

Pailazoaren tolesak,

funtzionarioaren oporrak,

boto paper bizardunak,

estatistika hankamotzak,

haur ikusezinak,

munduko jakintsurik tontoenak,

txokolatezko zauriak,

jostailuzko tortura gelak.

Etorkin naiz segundoak bezain eta

aditzak manifestuetan nola

diot:

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Erein ditut hitzak eta jaio dira oihartzunak.

Bizi naiz alu eta zakiletan.

Ahoen basamortuan isiltzeko mintzo naiz.

Ezin dut neure burua zeharkatu

egarria sentitu gabe.

Erein ditut balak eta jaio dira demokratak.

Erein ditut leloak eta jaio dira koltxoiak.

Erein ditut zalantzak eta jaio dira txostenak.

Erein ditut epaiak eta jaio dira epaileak.

aztluari nugazed nige ebag nase ironi

Bizi naiz besoetan.

Gorputzak zuhaitzak farolak eta

semaforoak hazten zaizkit galtzarbean.

Bizi naiz begietan.

Adinaren geltokietan

suizidatu zait normaltasuna.

Ekintza baten moduan ulertu dut

ortzadar laukien laztana.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Bizi naiz oihuetan.

anusatnidrebze arog! auxes ate katekork!

Hildakoen ispiluek ahaztu dutena naiz.

Bizi naiz orroetan.

kalakidarre arog! kaetnarelotni areheb!

Erein ditut isiluneak eta jaio dira gehiengoak.

Erein ditut argazkiak eta jaio dira izenak.

Erein ditut itsusiak eta jaio dira gogoak.

Erein ditut ukabilak eta jaio dira ferekak.

Erein ditut lubakiak eta jaio dira gorputzak.

49. jarduera

Orain zuen txanda izango da. Jarraian dituzuen olerki eta mikroipuinak irakurri itzazue eta aukeratu ezazue bat. Binaka, aukeratutako testua errezitatuko duzue ahotsaren alderdi guztiak zainduz, eta sakelakoaren ahots-grabagailuan egindakoa jasoz.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Ez zen arrunta, ez, haien maitasuna

Lizunkeriatan ibiltzearren atxilotu zituzten. Eta azalpenak ematen hasi zirenean, ez zien inortxok ere sinetsi. Egia esanda, haien maitasuna ez zen batere arrunta. Bata klaustrofobiak jota zegoen; bestea, berriz, agorafobiak. Hauxe zuten arrazoi bakarra larrutan atarietan egiteko.

Mario Benedetti

Gaua

Ezinezkoa zait lorik egitea. Emakume bat dut trabaturik betazalen artean. Ahal izanez gero, alde egiteko esango nioke; baina ezin: emakume bat dut eztarrian trabaturik.

Eduardo Galeano

Ardi beltzarena

Urrutiko lurralde batean bazen aspaldi Ardi beltz bat. Fusilatu egin zuten. Mende bat igarota, artaldeak, damuturik, zaldigaineko estatua bat jaso zion, eta parkean dotore ezarri. Honela, aurrerantzean, ardi beltzen bat agertu bakoitzean, berehala fusilatzen zuten, etorkizuneko belaunaldietako ardi arruntek ere eskulturan aritzeko aukera izan zezaten.

Augusto Monterroso

Maitasuna 77

Eta egin ohi duten guztia egin eta gero, jaiki egiten dira, bainua hartu, talkoa eman, lurrinez atondu, orraztu, jantzi eta, honela, apurka-apurka itzultzen dira ez diren hura izatera.

Julio Cortazar

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Chuang tzu-ren ametsa

Chuang Tzuk amets egin zuen tximeleta bat zela, eta esnatzean ez zekien tximeleta bat zela amets egindako gizon bat ote zen, edo orain gizon bat zela amets egiten zuen tximeleta bat.

Herbert Allen Giles

Lotsa zer den

Hain kezkatzen zen eragozpenik ez sortzeko, leihoa itxi baitzuen berriz bere atzetik, jo eta jauzi egin ondoren, seigarren pisutik behera.

Jacques Sternberg

Beldurra

Ia-ia goizero, geure auzoko andre jakin bat bere etxetik irteten da, laster batean, aurpegia zurbil eta berokiaren hegalak bortitz astintzen direla. Garrasi egiten du: “Larrialdia! Larrialdia!; eta gutako bat beragana joaten da, eta besoetan eusten du beldurra baretzen zaion arte. Badakigu guztia asmatu duela, ez zaiola ezer gertatu. Baina ulertzen dugu; izan ere, gutako ia guztiok sentitu dugu noizbait berak egiten duen horixe bera egiteko gogo bizia, eta aldiro, geure indar osoa behar izan dugu, eta baita gure adiskide eta senitartekoen indar osoa ere, geure burua isiltzeko.

Lydia Davis

Paper batean

Nire bizikletaren saskian norbaitek utzitako paper batean irakurri dut. “Kaixo, Eneko: Naroa gaixo egon da eta ez da komeni izerditzea, oraindik ez dago guztiz sendatuta. Mila esker.” Kaligrafia polita du Naroa gaixoak.

Ana Malagon

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Antsien oharrak 2

Haragiak eta haragiak daude.

Nik haragi berri batekin egiten dut amets.

Haragi horren atomoek elkar maite dute

ez dutelako ezagutzen

ez jogurt desnatatuen iragarkirik

ezta jantzi-dendetako tailen koderik ere.

Haragi horretako zeluletara ez da sekula iritsi

konparazio hitzaren oihartzunik.

Haragi horrek onetsi egiten ditu bere pitzadurak,

fetuen bolumenak utzitako labirintoak,

gernuaren erantzun anonimoak,

koipe-soberakinak.

Haragi horretan ez dago birus maltzurrik sorgor,

ez baita sentikorra ispiluekiko.

Eta bikain burutuko lituzke sintesi-erreakzioak

nire burmuinaren eta hezur-mami-azalen artean.

Miren Agur Meabe

Ez dut nahi

Ez dut lurperatuko nauen aberririk nahi,

izan nahi genuena ahora ekarriko didanik.

Ez dut nekatuko nauen maitasunik nahi,

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

lepora igoko zaidanik mendeku hartzeko ez bada.

Ez dut babestuko nauen amarik nahi,

alboan izango ez badut denbora badoanean.

Ez aberri, ez maitasun, ez amarik

ez badut, nora itzuliko naiz?

Leire Bilbao

Poemak

Poemak idatzi nahi nituen.

Poemak idazten zituena izan nahi nuen.

Poemak idazten zituenari buruz hitz egin zezaten nahi nuen.

Idazten nituen poemei buruz hitz egin zezaten nahi nuen ala ez dakit.

Ezetz esango nuke. Castillo Suarez

Bai, aske egiten nau lanak / Amaren berriketak ez entzun

Umore txarrez egon / Telefono dei hura

Muxu hori / Zein agindutako bizkotxoa atzeratu

Ametsei joaten utzi / Dena egin dezaket, lanpetuta egonik.

Ione Gorostarzu

Munduan gertatzen den guztia

Batzuk / egunkarian / munduan gertatzen den guztia / irakurtzen dute

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eta / munduan gertatzen den guztia

munduan gertatzen den guztia / dela sinisten dute.

Batzutan / haizeak / egunkariaren orriak / astintzen ditu / banderak bailiren.

Joseba Sarrionandia

Hutsune

Ezaren ezereza / Mundu hau dut mespretxa

Egoneza / Presa / Itxaropen geza

Itotako ametsa / Malkoen babesa

Ezaren ezereza / Ihesa

Ekhine

Eizagirre

Zure ahotsarekin lanean ibili zara oraingoan. Zelan moldatu zara zure ahotsa modulatzen, eta erritmoa, bolumena eta tonuarekin jolasten? Eroso sentitu zara erritmoa aldatzen, geldiuneak egiten, irakurketa moteltzen edo azkartzen? Erraza izan da notak igo eta jaistea emozioak transmititzeko? Bolumena doitzen asmatu duzu intentsitatea txikitzeko eta handitzeko?

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

50. jarduera

Amaitzeko, euskal kantu gogokoenei buruz solas egingo duzue talde txikietan. Pentsatu zein den gehien gustatzen zaizuen euskal kantuetako bat, gero kontatu taldeari zergatik gustatzen zaizuen, sakelakoan entzun, eta jaso taldekideen erantzuna. Jarraian, euskal kanten zerrenda bat duzu, Zaldibian *Izan Kantuz* egitasmorako bildu zituztenak (ez daude denak, baina, inspiratzeko beharra baduzu, ez zaizulako euskal abestirik bururatzen, hori erabili dezakezu):

http://www.zaldibia.org/fitxategia_ikusi.php?id=4543&karp=43

Material osagarria

Sanz Pinyol, Gloria. (2005). *Comunicación efectiva en el aula. Técnicas de expresión oral para docentes*. Bartzelona: Graó.

Vilà, Montserrat. (2005). *El discurso oral formal*. Graó.

Ahozko aurkezpena egiteko aholkuak:

https://www.youtube.com/watch?v=CcogpV4DjNs

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Prezi edo ppt bat sortzerakoan, askotan ez dugu jakiten zein kolore aukeratu. Jarraian duzu kolore bakoitzaren esanahia, hautatzen lagunduko dizulakoan.

Azterketaren hirugarren galderan, azalpena eta gogoeta eskatuko zaizkiue gaitasun pragmatikoari buruz, eta horren baitako diskurtsoaren analisian, gurasoekin elkarrizketan, eta ahozko azalpen formalean ikasitakoei buruz. Beraz, errepasatu azken gai hauetan landu ditugun oinarri teorikoak, eta pentsa ezazue zeintzuk izan daitezkeen hirugarren galderarako aukerak.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

8. PANTAILEN ERAGINA HAURRENGAN: komunikazio-tresnak moduluko (K3) lana (lan ebaluagarria)

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Euskaltzaindiaren hiztegian bilatzen badugu *pantaila* hitza, honako bi adiera hauek topatuko ditugu:

1. Irudiak proiektatzen diren xafla modukoa.
2. Telebistan edo gailu elektronikoetan irudiak eratzen diren azala.

Ikasturte hasieratik aritu zarete taldeka moduluko lana egiten. Dokumentazio-lana egin duzue hasieran, gaiari buruzko iturriak bilatuz, eta horri buruzko ikerketa, artikulu eta lanek zer dioten bildu duzue. Jarraian, praktiketan, zuen ikasgelako haurrak behatu dituzue, eta datuak jaso dituzue pantailen presentziari eta funtzioari buruz:

Ze pantaila daude ikasgelan? Pantailarik ekartzen dute haurrek etxetik, edo haien gurasoak ikusten ditugu haurrei pantailak erakusten eskolako harreran edo irteeran? Ze pantaila daude eskolan, ikasgelatik aparte? Zein da maisu-maistren jokaera pantailekin? Zertarako erabiltzen dira pantailak ikastetxean? Ze informazio jasotzen dute ikasleek pantailetatik? Ze balio, irudi, gai heltzen zaizkie pantailetatik?

Praktiketatik bueltan, mapa kontzeptual digital batean antolatu dituzue dokumentazio fasean bildutako datu teorikoak eta praktikaldiko behaketan jasotako datu praktikoak *Mindomo* programa erabilita (edo infografia baten bidez *Canva* edo *Genially* programak erabilita). Horretarako, sintesi-lana egin behar izan duzue (zer sartu eta zer utzi alde batean, ideia nagusiak identifikatu, gakoak elkarrekin lotu) eta mapa kontzeptual koherente eta kohesionatu bat osatu duzue, egitura propioa sortuz (ahal den neurrian estiloa eta originaltasuna

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

landuz). Hizkuntza aldetik akatsik ez duen testua dela ere ziurtatu duzue, eta hitzekin batera irudiak, estekak edo bideoak txertatu dituzue.

Mapa kontzeptuala prest egon denean, azken fasean murgildu zarete: zuen lanaren ahozko azalpen formala egitea. Horretarako, jendaurrean hitz egiteko estrategiak eta alderdi garrantzitsuenak zeintzuk diren identifikatu duzue eta (aurreko gaian, ikasgai honetan) landu dituzue klasean.

Beraz, ikasgai honekin amaitzeko, moduluko lanen aurkezpenak egingo dituzue, taldeka eta klase-orduetan. Dramatizazio moduko bat izango da, aurrean ikus-entzule izango dituzuen ikaskideek gurasoen rola jokatuko dutelako, eta zuek, zuen eskolako irakasle taldearena. Egoera honako hau da:

Aurten, “pantailen eragina haurrengan” gaiari buruzko ikerketatxoa egin duzuen Haur Hezkuntzako eskola bateko irakasle batzuk zarete, eta ikasturte-amaieran erabaki duzue zuen ikasleen gurasoei aurkitu duzuenaren berri ematea, bai ondorio orokorren formatuan, bai aholku sortaren formatuan, zuek nahiago duzuen eran.

Ea zer-nolako aurkezpenak egiten dituzuen maisu-maistren rolean! Eta guraso moduan ere, parte hartu galderak eta iruzkinak eginez. Espero dut etorkizuneko lanbidean zuen komunikazio-gaitasuna lantzeko urrats esanguratsuak egin izana lau hilabete honetan, eta bidean zuen kabuz jarraitzeko baliabideak eskura ipini izana.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Albaladejo, Marta. (2007). *La comunicación más allá de las palabras*. Bartzelona: Graó.

Albaladejo, Marta. (2010). *Cómo decirlo. Entrevistas eficaces en el ámbito educativo*. Bartzelona: Graó.

Askoren artean. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza http://www.soziolinguistika.eus/files/eskuliburua_osoa.pdf

Askoren artean. (2016). *Hizkuntza Eskubideak bermatzeko Protokoloa*. http://protokoloa.eus/wp-content/uploads/2017/06/protokoloa_eu.pdf

Askoren artean. (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557

Austin, John Langshaw. (1962). *Cómo hacer cosas con palabras*. Bartzelona: Paidós.

Blum-Kulka, Shoshana. (1999). «Pragmática del discurso». IN Van Dijk, Teun. A. *El discurso como interacción social*, 2. lib., Bartzelona: Gedisa. 67-99.

Bourdieu, Pierre. (2008). *¿Qué significa hablar?Economía de los intercambios lingüísticos.* Madril: Akal.

Calsamiglia, Helena eta Tusón, Amparo. (2007). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

Castellà, Josep M.; Comelles, Salvador; Cros, Anna eta Vilà, Montserrat. (2007). *Entender(se) en clase: estrategias comunicativas de los docentes bien valorados*. Bartzelona: Graó.

Cazden, Courtney B. (1991). *El discurso en el aula. El lenguaje de la enseñanza y del aprendizaje*. Bartzelona: Paidos/MEC.

Escandell, María Victoria. (1996). *Introducción a la pragmática*. Madril: Anthropos.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Espinar, Eva. (2007). Estereotipos de género en los contenidos audiovisuales infantiles. *Comunicar, Revista de Comunicación y Educación 29*, 129-134.

Esteve, Olga. (2009). “La interacción, un proceso que implica conversar”. *Cuadernos de pedagogía 391*. 56-59.

Etxebarria, Aintzane eta Garai, Urtza. (2010). “Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia”. *Uztaro 73*. 39-48

Eusko Jaurlaritza. (2015). *Euskara: jarrerak eta iritziak*. http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_14tef7/es_def/adjuntos/14tef7.pdf

Ezeiza, Joseba (koord). (2009). *Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen eskuliburua*. EHU. Euskara Institutua

Ferres i Prats, Joan. (1998). Televisión, Familia e imitación. *Comunicar*, *Revista de Comunicación y Educación 10*, 33-39.

Galán Fajardo, Elena. (2007). Construcción de género y ficción televisiva en España. *Comunicar, Revista de Comunicación y Educación, 28*, 229-236.

García Matilla, Agustín. (2011). *Una televisión para la educación. La utopía posible.* Bartzelona: Gedisa.

Intxausti, Mari Jose. (2015). *La entrevista: construir la relación con las familias (0-6)*. Bartzelona: Grao.

IVAP. (2005). *IVAPeko Estilo liburua*. www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf

Jover, Guadalupe eta García, Jesús María. (2009). *Hablar, escuchar, conversar: teoría y práctica de la conversación en las aulas*. Bartzelona: Octaedro.

Medrano Samaniego, Concepción, Palacios, Santiago, Aierbe-Barandiaran, Ana (2007). Los hábitos y preferencias televisivas en jóvenes y adolescentes: Un estudio realizado en el País Vasco. *Revista Latina de Comunicación Social 62*. 1-15.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Ruiz Bikandi, Uri. (apail.). (2009). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: EHU.

Sanz Pinyol, Gloria. (2005). *Comunicación efectiva en el aula. Técnicas de expresión oral para docentes*. Bartzelona: Graó.

Sarasola, Ibon. (1998). *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.

Soziolinguistika Klusterra. (2016). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria*. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf

Studer, Jurg. (2002). *Guía práctica de oratoria: hablar, exponer, convencer*. Madril: El Drac.

Torres, Esther, Gabantxo, Miren eta Eizagirre, Ana. (2007). *Familia, televisión e internet, ¿tenemos el enemigo en casa? Pautas para el consumo seguro y crítico de las pantallas.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Tusón, Amparo. (2006). *Análisis de la conversación*. Bartzelona: Ariel.

Van Dijk, Teun. (2000). *El discurso como interacción social*. Bartzelona: Gedisa.

Verschueren, Jef. (1999). *Para entender la pragmática*. Madril: Gredos. 2002.

Vilà, Montserrat. (2005). *El discurso oral formal*. Graó.

Yule, George. (1996). *Pragmatics*. Oxford: Oxford University Press.

Zuazo, Koldo. (2000). *Euskararen sendabelarrak.* Irun: Alberdania.

Zulaika, Elixabete eta Perez-Gaztelu, Esther. (2012). *Idatziz komunikatu. Gazteak eskolan idazten*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900